2026-11-27 OSTIRALA
38. ZENBAKIA

DEBABARRENEKO ASTEKARIA
BARRENA.EUS / TOKIKOM.EUS

Barrena

KULTURA

"Bizitza duin baten bilaketa da 'Arkitektura' diskoa" / 6-7

Izaro
Musikaria



NEREA GARRO

ESPAINIAKO HAUTESKUNDEAK

57.359 debabarrendar, igandean Espainiako Kongresua eta Senatua osatzeko botoa ematera deituak / 8-9



SAREA

Sortzaileen lanak, erakusleihora

Gaur zortzi, abenduaren 4an, zabalduko dute Durangoko Azoka, kultur eskaintza zabalarekin. 1.098 nobedade izango dira aurten eskuragarri –tartean, debabarrendarren lan batzuk ere bai–, eta 311 ekitaldiko egitarauak osatuko du eskaintza / 3-5



Abenduaren 4tik 8ra egingo da Durangoko azoka, euskarazko sorkuntza sustatu eta erakusteko topagunea. DURANGOKO AZOKA

GIZA BALIOAK

Mikel Larrañagak jaso du Gure Balioak saria, aro demokratikoko Eibarko lehen alkate izan zen euskaltzaleak / 9



EIBAR FUTBOL TALDEA

ZALDIBARKO HONDAMENDIA

Diseinu aldaketek eta kontrol faltak "eragin zuzena" izan zuten zabortegiaren hondoratzean / 20

EKONOMIA

27,5 milioi euroko aurrekontua onartu du Elgoibarko Udalak, EAJren eta PSE-EEren botoekin / 16





Mallabian asteazkenean egindako elkarretaratzea. ANDER GOMEZ

AZAROAREN 25A

Amorruak eta haserreak hartu dituzte kaleak

Milaka lagun mobilizatu dira ibarrean, indarkeria matxistaren kontra eta balio feministetan oinarritutako gizarte baten alde, eta indarrak batzeko beharra aldarrikatu dute denek, egiturazko arazoari erantzun kolektiboa emateko



Elgoibarren asteazken iluntzean egindako elkarretaratzea. MIKEL ASKASIBAR

Ainara Argoitia DEBABARRENA

2025ean, orduko bost emakume hil zituen bikotekideak edo gertuko senideren batek; 78.000 guztira. Hala jakinarazi zuen Nazio Batuen Erakundeak azaroaren 24an. Datu horren beharrik ez zegoen, baina, egoeraren gordinaz jabetzeko. Arazo beltza da indarkeria matxista, egiturazko arazo larria, eta eguraldi ezin beltzagoko egunean egokitu da, aurten, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna bera ere. Euria goian behean egin zuen asteazkenean, baina, eguraldi makurra eginagatik, milaka lagun irten ziren kalera Euskal Herri osoan, balio feministetan oinarritutako gizarte baten alde. Berdin Debabarrenean. Herri gehienetan egin ziren mobilizazioak –*barrena.eus*-en daude herriz herrikako irudiak–, eta indarkeria matxistaren kontra egiteko horma sendotzera deitu zuten haietan guztietan.

Faxismoaren gorakadaren eta krisiaren aitzakian, are ezkuturago

"Borroka kolektiboa izango da edo ez da izango". Horixe batean eta bestean nabarmendu zuten ideia, eta arazoari duen garrantzia aitortzeko eskatu zuten. Izan ere, egungo krisiaren eta eskuin muturraren gorakadaren testuinguruan, emakumeen kontrako indarkeria bigarren mailan gelditu dela salatu zuten mobilizazioetan; zegoena baino are ezkuturago. Emakumeek egunero-egunero sufritzen dituzten askotariko erasoak, hilketak eta bestelako jarrera matxistak gizartean errotutako arazo direla gogora ekarri zuten, eta zapalkuntza horretan klase sozialak, arrazializazioak, egoera administratiboak, adinak eta bizitokiak eragina dutela nabarmendu.



Ermuan mugimendu feministak deituta egindako elkarretaratzea. ANDER GOMEZ



Itaiak deituta Ermuan egin zen eskualde mailako protesta. GARAZI MENDIETA



Euriagatik, aterpera batuta egin zuten elkarretaratzea Soraluzen. UBANE MADERA



Beñat Gaztelurrutia azokako koordinatzailea eta guneetako arduradunak, azaroaren 17an egindako aurkezpenean. DURANGOKO AZOKA

Guztira, 1.098 nobedade eta 311 ekitaldi izango dira Durangoko 61. Azokan

Prestaketa-lanak azken txanpan sartu dira, eta dagoeneko aurkeztu dute aurtengo jaialdiaren egitaraua. Hilaren 4tik 8ra, 1.098 nobedade eta 311 ekitaldi izango dira Durangoko Azokan; orain arteko kopuruak gainditu egin dituzte. "Eskaintza aberatsaz" gozatzera deitu dituzte herritarrak: "Bai ohiko bisitariak, bai kulturazale berriak"

Izaro Aulestiarte DURANGO

Hilabeteetako lanaren ostean, urte amaierarekin batera bueltan dator euskarazko sorkuntza sustatu eta erakusteko topagune nagusia: Durangoko Azoka. 61. edizioa du aurten, eta abenduaren 4tik 8ra egingo da; aparteko aldaketarik gabe, baina eskaintza eta egitarau oparoarekin.

Joan den astean aurkeztu zituzten azokaren nondik norakoak, Durangon. Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkarteko eta Durangoko Azokako koordinatzailea nahiz egitaraua antolatzen lanean ari diren guneetako arduradunak izan ziren agerraldian. Eta bertan eman zituzten aurtengo jaialdiaren xehetasunak, zenbakitan: Landako Gunean 286 erakusmahai egongo dira, 174 partaiderekin; bertan, aurten argitaratutako 1.098 kultur nobedade izango dira eskuragarri –681 liburu, musikarekin lotutako 177 lan, 57 aldizkari eta beste 156 argitalpen, hala nola jolasak, laminak eta papertegiko produktuak–. Horrez gainera, 311 ekitaldiko egitaraua ere eskainiko du azokak gunez gune zabalduko duen programak.

"Sortzaileen ekarpenari esker, egitarau zabala eta aberatsa izango dugu aurten. Horregatik, jaialdi honetan murgiltzeko eta arakatzeko dei egin nahi diegu herritar guztiei, bai ohiko bisitariei, bai kulturazale berriei. Izan ere, Durangoko Azoka ezagutzen duguna eta askoz gehiago da", adierazi zuen Gaztelurrutiak.

Azokaz haragoko eskaintza

Abenduaren 4an hasiko da 61. Durangoko Azoka, eta abenduaren 8ra arte egongo da zabalik, 10:30etik 20:00etara. Azken egunean, baina, 18:00etan itxiko dute.

Nolanahi ere, azoka itxi ondoren ere egongo da zer egina Durangon, kontzertuak ere antolatu baitituzte: abenduaren 4an, adibidez, Beire eta Txopet taldeek joko dute; 5ean, Mikosis eta TOC arituko dira; 6an, Peiremansen kontzertua izango da; eta 7an, Verde Pratok, Silitiak eta Malakiasek egingo dituzte emanaldiak.

Kontzertuez gain, beste hainbat ikuskizun ere izango dira iluntzean: abenduaren 5ean, *Izanen GA!* errezitaldia eta *Gabriel Aresti Mug(H)arri* pieza eszenikoa; 6an, *Oraingoz izen gabe* filma; eta 7an, *Maitasuna ez da nahikoa* manifestu poetiko musikatua. Bestalde, iazko Sormen Bekaren irabazleen lana ere aurkeztuko dute azokan, hilaren 5ean.

Guneak ere iazko berak izango dira, zortzi guztira: Talaia, 58 aurkezpen eta mahai-inguru hartuko dituena; Berbagailua, bideopodcastei eskainia, Madalenako ermitan kokatua; arte ederrei eskainitako Atartea, Durangoko Museoan kokatua; Ahotsenea –62 liburu eta 43 disko aurkezpen izango dira bertan–; Irudienea –euskaraz ekoitzitako 47 ikus-entzunezko lan eskainiko dituzte, Zugaza zinema-aretoetan–; Kabia, teknologiaren eraldaketak gure bizitzan, gizartean eta hizkuntzan dituen ondorioak aztertzeko espazioa; Saguganbara, haur eta gaztetxoei zuzendutako aurkezpenak, ipuin-kontaketak, tailerrak eta ikuskizunak bilduko dituena; eta antzerkia eta arte eszenikoen erakusleiho den Szenatokia.

Ikasle Goiza eta Gazte Eztanda

Ikasle Goizari eskainiko diote azokaren lehen eguna, hilaren 4a, eta haiei zuzendutako tailerrak eta jarduerak antolatuko dituzte hainbat gunetan, baina Landako Gunea eta gainerako espazioak bisitari guztientzat egongo dira zabalik. Abenduaren 5ean, aldiz, Gazte Eztanda ospatuko dute, eta, bereziki, haientzako pentsatutako eskaintza izango da egitarauan.

Sarean, *durangokoazoka.eus* webgunean, edota eskuko paperezko programaren bidez kontsulta daiteke aurtengo Durangoko Azokaren egitarau osoa.

Sortzaileen lanari aitortza, irudian ere bai

Euskal Herriko sortzaileen balioa eta ekarpena aitortuko ditu aurten Durangoko Azokak, eta ideia horretatik abiatuta garatu du Andoni Beristain diseinatzaile, argazkilari eta arte-zuzendari gipuzkoarrak DA! Kulturaren Jaialdiko iruditeria, kulturaren aniztasuna eta sorkuntzaren atzean dagoen lana irudikatzeko helburuarekin. Bada, euskal kulturaren aberastasuna eta sorkuntza analogikoaren balioa aldarrikatzeko, Beristainek kulturaren hainbat arlotan erabiltzen diren objektuak jarri ditu irudien erdigunean, natura hilen bidez diziplina eta sortzaile guztiei lekua egiteko. Irratiko mikrofonoa, margolarien paleta, kamera analogikoa, idazmakina, walkmana eta kasetea ageri dira, besteak beste, iruditerian. "Asmoa aspaldiko sorkuntza-moduak eta horretarako erabiltzen ziren tresnak aldarrikatzea izan da", azaldu du sortzaileak.

286

ERAKUSMAHAI

Landako Gunean 286 erakusmahai jarriko dituzte aurten, 174 partaiderekin

311

EKITALDI

Egitarauak askotariko 311 ekitaldi bilduko ditu, azokako zortzi guneetan banatuta

Bestalde, garraio publikoa erabiltzeko dei egin dute antolatzaileek; garraio zerbitzu bereziak izango dira azoka egunetan, eta joan-etorriko autobus zerbitzua izango da Landako Gunea eta Iurretako aparkalekuak lotzeko.

Debabarreneko sortzaileen eskaintza zabala Durangoko Azokan

Durangoko Azokako eskaintza oparoan badira Debabarreneko taldeek eta norbanakoek sortutako liburuak, diskoak eta papergintzako produktuak. Ondorengo bi orrialde hauetan nobedadeetan topatu ditugunak bildu ditugu, baina, hemen jasotakoez gain, izango dira, jakina, debabarrendarren parte-hartzearekin ondutako produktu gehiago ere eskuragarri han.

Nolanahi ere, azoka hutsa baino gehiago da Durangokoa, eta jai egitarau oso bat ere egongo da kulturazaleen eskura, diziplinen eta guneen arabera sailkatuta. Azokaren webgunean kontsulta dezakezue egitarau osoa. Izan ere, eskaintza horretan ere badira eskualdeko sortzaileen liburu-aurkezpenak, hitzaldiak eta kontzertuak. Esaterako, gaur zortzi, abenduak 4, beren azken lanak aurkeztuko dituzte Xabier Badiolak eta Amorantek, Plateruenan, kontzertu formatuan. *Leiho ondoan xori bat* diskoa aurkeztuko du Badiolak, 18:00etan, eta laugarren diskoa duena Amorantek, 20:20an: *Ez dot amaitu*. Era berean, Danele Sarriugartek, Jasone Osorok, Nerea Loiolak, Unai Belaustegik eta Badihardugu elkarteak beren nobedadeak aurkeztuko dituzte, Ahotsenean, hainbat egunetan, eta abenduaren 8an, euskal adimen artifizialaren lehen inplementazioaz ariko dira PuntuEus fundaziokoak, Talaia gunean. Bestetik, Sustaturi ere egin dio lekua Durangoko Azokak aurten. Euskaraz sortutako lehenengo weblog kolektiboa eta teknologia berrien inguruko albistegia da Sustatu, eta abenduaren 4an, haren 25. urtemuga ospatuko dute, Kabian, 16:00etatik 20:00etara. XXI. mendearen lehen laurdeneko euskarazko Interneteko espazioaz hausnartzeko ere probestuko dute ospakizuna.



Makis 37. 'Eromenarekin ihesean'
Alex Gonzalez eta Julen Gutierrez ermuarrek eta Miguel Beraza eta Gaizka Uranga elgoibartarrek osatzen dute Makis 37, eta Durangoko aurtengo nobedadeetan dago beren bigarren diskoa: *Eromenarekin ihesean* –2023an eman zuten argitara estreinakoa: *Malkoaren distira*–. Euskarazko eta gaztelaniazko hitzak uztartu dituzte bigarren diskoan, eta gizarte-gaiak eta injustiziak dituzte kantagai.



Xabier Badiola. 'Leiho ondoan xori bat'
Leiho ondoan xori bat Xabier Badiola musikari eibartarraren bakarkako bigarren diskoa da, folk akustikoaren barruan sailkatu dutena. Gitarra eta ahotsa ardatz hartuta, denboraren joana eta oraina bizi izateko beharra ditu hizpide, eta giro intimoa sortzen du. Abadetxe estudioan grabatu zuen diskoa Badiolak, 2024ko abendutik 2025eko irailera, eta hamar kantuz osatua dago.



Izaro. 'Arkitektura'
Bizitza bat eraiki, haren zimenduak zalantzan jarri eta oinpean daukagunari berriro begiratzeko ideiatik sortutako lana da Izaroren azkena: *Arkitektura*. Abenduaren 4an du aurkeztekoa diskoa; hain justu ere, azoka zabalduko duten egun berean, eta urtarrilean hasiko du zuzenean aurkezteko bira. Nolanahi ere, disko honen ingurukoak hurrengo bi orrialdeetan bildu ditugu artistari egindako elkarrizketan.



Sugramas. 'Black Storm saioak'
Bi kantuz osatutako singlea da, Karrantzako Black Storm estudioetan zuzeneko estiloan grabatutakoa. Bere musika ibilbidean lagun egindako honako musikari hauek izan ditu ondoan Jon Gurrutxaga elgoibartarrak lan honetan: Miguel Moral baxuan (Positiva, Rapida), Andoni Etxebeste baterian (Señor No, Chico Boom, Belar Hostoak) eta Xabier Badiola (The Mood Rings, Sotomonte) gitarran. Hitzetarako Xabi Lasarengana jo du berriro Gurrutxagak.



Maraca Diablo. 'Txaskario'.
Maraca Diabloren bakarkako hirugarren lana da *Txaskario*. Adiskidetasunari eskainitako lana da, izenburutik bertatik hasita, Angel Bazterretxea Mendaroko abade izandakoari (Mutriku, 1936 - Mendaro, 2019) zor baitio izenburua, "printzipio sozial eta politiko sendoko gizonari", eta lagunen berotasuna eta lagunen falta ageri dira kantuetan. Hamar kantuko diskoa da, nahiz CDan hamaikagarren bat ere gehitu duten.



Amorante. 'Ez dot amaitu'
Laugarren diskoa du Amorantek *Ez dot amaitu*. Zortzi kantuko diskoa da, Joanes Buffekin grabatu duena. Benoit Belek egin dizkio masterizazio lanak eta Ramon Zabalegi artistarena da estetika. Hitzak, berriz, bi ez beste guztiak bereak ditu. Beste biak: bata, Mari Luz Estebanena, eta bestea, Gartxot Ursainena. Bi horiez gain, Joseba Irazoki, Xabier Zeberio, Felix Buff eta Niño de Elcheren kolaborazioak ere izan ditu.



Nerea Loiola. 'Munstrokast deluxe'
Nerea Loiola Pikaza debarrak idatzi eta Ivan Landa ilustratzaileak irudiz jantzitako liburua da, 8-10 urte bitartekoei zuzendutakoa. Abentura-liburua da, berezia, irakurlea bera egiten baitu protagonista. Izan ere, abentura argitzeko erabakiak hartu beharko ditu irakurleak, eta zenbait enigma ebatzi. Liburuan edozein unetan egin ahal izango du atzera, gainera, eta istorioa aldatu.



Nerea Loiola. 'Gramo bat'
Nerea Loiolak Maider Leturiaga ilustratzailearekin batera ondu duen album ilustratua da. Markina-Xemeingo Udalak antolatutako Peru Abarka lehiaketa irabazi zuen Loiolak idazlan horrekin, eta Ereinekin eman du argitara. Borondatezko abortuaz dihardu albumak. Laugarren haurdunaldia etetea erabaki du emakume batek –hiru haurren ama da–, eta istorioak erabaki horren bueltan egiten du bidea.



Maria Reimondez. 'Basatiak'
Reimondezek galegoz idatzitako saiakeraren itzulpena da, Lisipe bildumarako Nerea Loiolak euskaratu duena. Hilekoari buruzko lana da, baina ez hilekoari buruzkoa bakarrik. Idazleak hilekoa baliatzen du askotariko gaietara heltzeko: gorputzak, sexismoa, ekologia, arrazismoa eta transfobia. Hilekoaz hitz egitea munduaz hitz egitea dela dio; bereziki, ezarritakoari uko egin eta mundu hobea eraikitzen dutenei buruz.



Nerea Loiola. 'Ysäuan. Bi eguzkien eklipsea'
Eskapu-liburua da, 10-14 urte bitartekoentzat sailkatu dutena, eta Erein argitaletxearekin eman du argitara idazle debarrak. Abentura-liburua da, eta bi eguzkien azpian ezkutatzen den egia aurkitu beharko du irakurleak. Egiteko horretan, baina, beharbada, beranduegi ulertuko ditu joko-arauak, edo, agian, traizionatu egingo dute.



Javier Buces eta Unai Belaustegi. '1976. Frankismoa Francorik gabe Euskal Herrian'
Javier Bucesek eta Unai Belaustegi mutrikuarrak koordinatutako argitalpen kolektiboa da, 1976ko urte gorabeheratsua eta Hego Euskal Herrian trantsizio-prozesuak izan zituen ezaugarriak aztertzen ditu, baita estatu-indarkeria eta diktadurarekin erabat haustearen aldeko gizarte-mugimenduak ere.



Libe Solozabal. 'Gerra-denporan hazten'
Growing up in a time of war liburuaren euskarazko itzulpena da, Libe Solozabal ermuarrak eginda. Hamahiru urtean zehar Arantza Cazalis Izarrak (Ermua, 1929) gerrako errefuxiatu bezala bizi izandakoak jasotzen ditu: Ermuan igarotako haurtzaroa, Espainiako gerrak haren familian eragindako haustura eta errefuxiatu gisa AEBetan izan zituen bizipenak.



Danele Sarriugarte-Lucia Baskaran. 'Otra cosa'
Arau heteropatriarkala kolokan jarri eta beste zerbait posible dela erakusten du Danele Sarriugarteren *Beste zerbait* liburuaren itzulpen honek -Lucia Baskaranena da itzulpena-. Hizkuntza ardatz duen erresistentzia-ariketa literarioa. Lekukotasuna, hausnarketa kritikoa eta eszena narratibo gordinak tartekatzen ditu.



Danele Sarriugarte. 'Alderantzira zamalka'
McKenzie Wark idazle australiarraren *Reverse cowgirl* liburuaren euskarazko itzulpena da. Transa izateko ezohiko modu bati buruz dihardu Warkek liburuan bere azaletik, eta agerian uzten du gizarteak espero duenetik kanpo egon badaudela gizon-emakume dikotomiarekin bat egiten ez duten identitate berriak.



Jasone Osoro. 'Tonta'
Bi galderari erantzuten die Jasone Osoro idazle elgoibartarrak *Tonta* eleberrian: zein den gure lekua munduan eta zertara gatozen mundura. Bi emakume dira protagonistak: mundua bizi izateko leku ezlekutzat daukan Brigitte, gurasoak galdu dituen 19 urteko neska eta Regina, bizitzaren zama bere gain daraman 60 urteko emakumea, aurrera egiteko kemena aitortzen diona munduari.



Uxue Alberdi. 'Ilunaroa'
Tim Probertek idatzitako *Lightfall* komiki-sail fantastikoko lehen liburukiaren itzulpena da, Uxue Alberdik euskaratutakoa. Istorioa Irpa fantasiazko munduan gertatzen da eta Bea neska gaztearen eta Cad izakiaren abenturak kontatzen ditu. Lightfall jatorrizko serieak haurrentzako komiki onenaren saria jaso zuen, 2022an, Angulemako Nazioarteko Komiki Jaialdian.



Jone Bengoa. 'Hau liburu bat da'.
Diseinatzaile, ilustratzaile, gidoilari eta bakarrizketari eibartarraren liburua da, eta artistak azken hiru urteetan sortutako bineten bilduma jasotzen du. Bizitza, lana, harremanak eta egunerokoaren absurdoa ditu ardatz, eta umorea eta "begirada zorrotza" uztartzen ditu. Munac Edizioak argitaletxearekin eman du argitara, eta komiki eta eleberri grafiko modura dago sailkatuta.



Maddi Astigarraga Bergara eta Irati Diez Virto. 'Nola egiten dute lo animaliek?'
Irati Diez Virto biologoak idatzi eta Maddi Astigarraga debarrak ilustratutako liburua da, zeinean, loaren bidez, animalia ikusgarriak ezagutzera ematen dituzten, eta, bide batez, jada ezagunak ditugun beste asko miresteko arrazoiak eman. Loak animaliontzat daukan garrantzia erakusten du liburuak.



Badihardugu Euskara Elkartea. 'Hika poltsikoan'
Euskarazko hitanoa ikasteko eta kontsultatzeko poltsikoko liburuxka txikiak dira. Badihardugu Euskara Elkarteak hainbat udalekin eta tokiko eragilerekin elkarlanean argitaratu ditu. Hitanoa noiz, norekin eta nola erabili ulertzeko gako praktikoak eta adizki laguntzaile nagusiak eta gehien erabiltzen diren aditz trinkoak jasotzen dituzte argitalpen hauek.



Jokin Oregi. 'Non dira haurrak?'
Jokin Oregi soraluzetarrak idatzitako antzerki-liburua da, izen bereko antzezlana eta *Eldarnioa* antzerki-pieza laburra biltzen dituena. Obrak 8 urteko neskato baten suizidio-saiakera kontatzen du; gertakari horren gainean harilkatzen da dramaturgia, eta "gizarte hautsi, krudelki zorrotz eta zeharo depresibo batek" haurrengan duen eragina agerian uzten du.

"Cerodenero' birako iceberga urtu zen uretan ernaldu da 'Arkitektura"

IZARO MUSIKARIA

Hamar urte igaro dira 'Om' lehen diskoa kaleratu zuenetik; hiru, *Cerodenero*-tik; neguarekin irudikatu zuen azken hori, eta udaberriari ongietorria egingo dio orain, Durangoko Azokaren irekiera egunean argitaratuko duen 'Arkitektura' diskoarekin



Izaro, *Arkitektura*-ren azalerako argazki-saioan. NEREA GARRO

Ander Gomez

Izaro Andres Zelaieta (Mallabia, 1993) ez da arkitektoa, musika izan du ogibide oparitutako tonbolako gitarra bat esku artean hartu zuenetik. Aurretik ere, ez zuen eraikuntzarekin lotutako ikasketarik egin. Kontzeptu horren bueltan eraiki du, ordea, abenduaren 4an kaleratuko duen disko berria.

Zergatik *Arkitektura?*

Oso barrurako diskoa izan zen *Cerodenero*. Buru barruan neukan kudeatu beharreko sua, eta horren inguruan jaio zen nire izotzaren erreinua. Behin su hori itzalita, kanporantz ireki zitzaizkidan begiak, beste sosegu batetik, eta egoera kontenplatiboan sartu nintzen; *ni*-a ez zen beste guztia. Eta engranaje handi bat hasi nintzen ikusten, bizitza bera, bizitzaren arkitektura.

***Arkitektura*-ren ateak zabaldu aurretik lau leiho ireki dituzu: *Zorua*, *Ingira*, *La Verdad* eta *Norena da denbora*. Lehen zertzeladak entzunda, konposizio intimoetatik aldentzeko joera sumatzen da, kanporako begirada bat, gizartera, mundura.**

Bai, guztiz. Bizitza duin baten bilaketa da diskoa: galdera asko, erantzunak ez hainbeste; baina ziurtasunak bai. Gustatuko litzaidake diskoaren bilakaeran erantzunak lortzen joatea.

***La Verdad* eta *Norena da denbora* kanten bideoetan arte-prozesua erakutsi duzu. Arkitekturan pentsatzean, hormigoia, altzairua, kristala… datozkigu burura, baina zuk naturako elementuak hartu dituzu diskoaren iruditeria osatzeko.**

Hasieran, arkitekturaren oinarrizko elementuei buruzko liburuak erosi nituen, eta irakurtzen hasi nintzen, baina nik berdea ikusten nuen. Oinarrizko materialak, egurra, azala, testurak, goroldioa... Konturatu nintzen bilatzen nuen arkitektura ez zela arkitektura antropozentrista, existentziarena baizik, osoa. Galaxiatik zelula txikieneraino. Ernamuinak aurkitu nahi zituela disko honek. Eta gizakia nahiko anekdotiko da existentziaren osotasun horretan, baina gure anekdota da.

***Ingira*-ren bideoan, goroldioz estalitako harri horiekin apaindu duzu Garate estudioa. *Cerodenero* biran iceberg erraldoia lagun izan zenuen; hortaz, harri horiek izango dira eszenatokietako atrezzo berria?**

Ez dakizu ondo zer pena eman zidan iceberg hari agur esateak. Baina iruditzen zait oraingo atrezzoan ere badagoela; eraldatu egin da, epeldu egin da, desizoztu, udaberria heldu zaio. Nola hala, haren esentziak gurekin jarraituko du; niretzat, behintzat, hura urtu den uretan ernaldu da *Arkitektura*.

"Single arteko opari gisa" argitaratu zenuen *Ingira;* zergatik?

Eraikuntza kontzeptua aplikatu nahi genuen albumaren prozesu osoan; edo saiatu, behintzat.

> **"Arkitektura'-k galdera asko ditu, erantzunak ez hainbeste; baina ziurtasunak bai"**

> **"Leihoak zabalik grabatu dugu ia dena, bizitza bera ere grabatuta gelditu zedin"**

Entsegua grabatu nahi genuen, guretzat, eta pentsatu genuen ideia ona izan zitekeela entseguko kantaren bat erakustea, zuzenekoaren eraikuntza-prozesuaren parte bezala. Bertigoa eman zidan, ez pentsa; ekoizpen- eta grabaketa-lan handia dauka diskoak, eta hori bera entzun aurretik entsegu bat erakustea ez da gauza erraza, baina uste dut hori ere izan dela disko hau: probatzea, bertigo horri aurre egitea, barruak erakustea, bidea izatea helmuga.

***Arkitektura*-ren aurkezpena, ordea, "zorutik" hasi zenuen. Hitz-jokoetarako duzun zaletasuna ezaguna da, baina inork ez zuen espero kanta itsaskor horrekin lurra konpontzeko "tutorial" bat hasi eta buka ikastea. Nola sortu zenuen?**

Kar-kar-kar... Arkitektura honetan, giza eraikuntza fisikorik ez nuen ikusten, ez paretarik, ez sabairik, baina zorua bai. Egurrezko tarima bat; akaso, egurrezko zutaberen bat. Baina zorua bai, belardi baten erdian 3 metro koadro zoru. Garrantzitsua izan da disko honetan lurra, gauzak non eraiki, zeren gainean, zimenduak non dauden, erroak. *Zorua* hitzarekin bueltaka heldu nintzen erotasunera, baita zoru pelbikora ere; behar nuen guztia zeukan hitz horrek. Lagun bat daukat duela gutxi arte lurrak lixatzen egiten zuena lan, eta eskatu nion azaltzeko pausoz pauso. Eta liluratuta gelditu nintzen zein aplikagarria zen sinbolikoki prozesua. Barre asko egin nuen kantu hori idazten; oso-oso ondo pasatu nuen.

Momentuz, *Zorua* da aurreko diskoko pop elektronikoari eusten dion kanta bakarra, baina hari-instrumentuen presentzia handia du; *Norena da denbora*-n abesbatza ere duzu atzetik. Etapa sinfonikoago bati ekingo diozu?

Ba, bai. Bueno, sinfonikotasuna esatea gehiegi da; gure baliabideen barruan egin dugu, baina bai, kontzeptuz bai. Udaberria da *Arkitektura*-n, eta udaberria sinfonikoa da niretzat, urtarorik produzituena da, emankorra, zarbatsua, mardula, aldi berean delikatua, loreetan, eta abar. Udaberria behar genuen kantari, eta hortik sinfonikotasuna; nire ahotsa ere lirikoago agertuko da beste diskoetan baino, txorien atzetik ibili gara. Eta, batez ere, giroa dago; leihoak zabalik grabatu dugu ia dena, bizitza ere grabatuta gelditu zedin.

***Zorua*-ren bideoklipean dantzan ikus zaitzakegu Oiz mendia atzean duzula; aspaldi Donostiaz maitemindu eta bertara joan zinela bizi izatera, baina bideo hori grabatzeko etxera bueltatu zara.**

Tontamentean joan ginen izeko-osaben bisitan Arroitajauregi baserrira. Haiek, umea ezagutzeko; eta nik, baserria. Eta sartu ginenean baserriko atzeko aldera, han ikusi nuen argi eta garbi *Zorua*. Maitane Campos bideo-egile eta zuzendariari esan nion aurkitu nuela lekua. Eta ezin izan zen aproposagoa izan. Anfitrioi ezin hobeak dira, gainera, Marisol eta Martin; esperientzia ederra izan zen.

Dagoeneko hamarkada bat igaro da *Om* kaleratu zenuenetik; nola gogoratzen dituzu hasierako urte haiek?

Asko dauka *Arkitektura*-k *Om*-etik. *Om* existitu aurretik, tabernetan eta hainbat espaziotan ibili nintzen jotzen, jendea biltzen-biltzen joan zen, eta kontzertuz kontzertu nirekin etor-



Izaro, *Arkitektura* diskoaren artearen parte den "goroldiozko ohean". NEREA GARRO

tzen. Kantak ikasi zituzten, ezer grabatuta egon aurretik. Horrek eman zidan grabatzeko indarra; bai emozionala, bai ekonomikoa. *Crowdfunding* bat egin genuen, eta diskoa grabatu. Disko komunitarioa izan zen *Om* niretzat. Denon artean egina. Eta *Arkitektura* ere elkarlan horretan oinarritzen da. Hori da nire *zorua:* inguruko tabernak, espazioak, ekimenak... Horrek eraiki ninduen ni. Trabakua Behekoa, lehen kontzertua, eta gero, handik inguruetara. Eibarren oroitzapen oso ona dut; bereziki, Hirurok tabernan: behin baino gehiagotan jo nuen, eta oroitzen dut lehenengoetako kontzertuak izan zirela non jendea abesten zebilen. Ez dakit taberna badabilen ere, baina eskertuta nago denekin betiko. Oso urte politak izan ziren.

Egun, areto handietan jotzen duzu; Belodromoan eta BECen makrokontzertuak egin dituzu, eta Victoria Eugeniako teilatukoa. Bira berrian Europako hiriburuak ere bisitatuko dituzu: Dublin, Londres, Paris, Brusela… Zer esango lioke orduko Izarok gaur egungoari? Amesten al zuen hori guztia?

Orduko Izaro harro dago, ziur nago. Eskerrak emango lizkioke bidea jarraitu izanagatik, baina zailena hark egin zuen orduan. Dena martxan jarri eta ekin. Ni nago hari eskertuta. Amestu bai, posible zela sinistu... barru-barruan, akaso, ere bai, eta horri eskerrak gaude hemen.



Garazi Esnaola, Mattin Arbelaitz, Julen Barandiaran eta Iker Lauroba, iceberg gainean, *Cerodenero* bira agurtzeko BECeko kontzertuan. IZARO

Badago duela hamar urteko Izarok zuen eta orain faltan igartzen duzun zerbait?

Tarteka, anonimotasuna igartzen dut faltan, eta aspertzea ere bai; gustatzen zitzaidan aspertzea.

Denbora honetan bizi izandako aldaketen artean, amatasuna izan da, ziurrenik, garrantzitsuenetako bat; eta, hain zuzen, *Arkitektura*-ren sorkuntza-prozesuari oso lotuta egon dela aipatu duzu. Zergatik?

Haurdunaldia delako arkitektura-lanik bikainena.

Aldaketa asko egon diren arren, ibilbide musikala abiatu zenuenetik zimendu/zutabe berberak dituzu alboan: Iker Lauroba, Julen Barandiaran eta Garazi Esnaola musikariak.

Nire familia dira. Ezin dut nire bizitza imajinatu haiek gabe, eta ez dut nahi, gainera. Izarok ez luke zentzurik izango haiek gabe, eta nik neuk ere ez. Hunkitu egiten naiz. Musikak eman didan opari ederrena dira, eta berrestu egin dut ama izan naizenetik, eta operatu nautenetik. Lanaren zati handi bat hartu dute beren gain, eta ni gabe proiektuak aurrera egiteko antolatu dira. Nire musikaren alde egiten duten dena ezin da nahikoa eskertu. Eta gero, elkarrekin pasatzen dugun denbora guztiak elkar eraiki gaitu. Denok gara bestearen parte, puzzle bat. Haiek gabe ezingo nuke, eta betiko izango naute haientzat.

Mattin Arbelaitzek osatuko du taldea baterian, baina haize- eta hari-instrumentuak ere ikusi ditugu zuzenekoetarako entseguetan; bira osoan izango dituzu alboan?

Mattinen bigarren bira ofiziala izango da gurekin; limoien garaian ere egon zen gurekin tarteka. Baina *Cerodenero*-n egin zuen bira osoa lehenengoz, eta gurean gelditu da. *Limoi* bilakatu da. Eta bai, bira honetan lagun berriak izango ditugu oholtzan. Hainbat formatu dauzkagu beti, egoera ezberdinetan jotzen baitugu lekuaren arabera, eta formatu osoa murriztu egin behar izaten dugu sarri. Baina formatu osoetarako bilduko zaizkigunak hauek: haizeetan, Gabiola anaiak, Mikel eta Xabi, eta Haizea Vallecillo; eta soketan, Maddi Arana eta Nora Lopez. Oso itxura polita du denak, onak, jatorrak, profesionalak eta gertukoak, gogotsu gaude birari ekiteko.

Kontzertuen eszenografiari dagokionez, ezer aurreratu dezakezu?

Liluratuta nago eszenografiarekin. Uste dut asmatu egin dugula. Dena txukuntzen eta ixten ari gara orain; azaroa katramilatu egin zaigu, baina hor goaz, mantso baina sendo. Ez dut gehiagorik aurreratuko; kar-kar.

Lehenengo kontzertua, urtarrilaren 23an Ficoban egingo duzuna, desberdina izango dela iragarri duzu. Badakigu jendez gainezka egongo dela, sarrerak aspaldi agortu zenituen eta; gainontzean, nolakoa izango da?

Ficoba berezia izango da. Bira eraikiko da bertan. Kontzertu baten arkitektura. Kontzertua baino lehen tailerrak egongo dira; hiru: jantzitegi-, arte- eta arkitektura-tailerrak. Bertan eraikiko dugu gurekin eramango duguna. Lan kolektibo bat izatea nahi genuen; ez dakigu nola aterako den, baina esperimentu interesgarria iruditu zaigu.

Aurretik, zaleek diskoa erosteko eta zurekin egoteko aukera izango dute, Durangoko Azokan?

Besterik ez dut buruan azokarako guztiz sendatzea baino. Jarri kandelak; deseatzen nago *Arkitektura* eta ni zuengana heltzeko.

2027ko bira

Urtarrila
- 23: Irun, Ficoba (agortuta)

Otsaila
- 12: Donostia, Kursaal (data berria)
- 13: Donostia, Kursaal (agortuta)
- 19: Donibane Lohizune, Tanka
- 20: Iruñea, Baluarte
- 27: Bilbo, Euskalduna
- 28: Madril, Teatro Albeniz

Martxoa
- 5: Granada, Planta Baja
- 6: Sevilla, Sala X
- 12: Vigo, La Fabrica de Chocolate
- 13: Gijon, Sala Acapulco

Apirila
- 9: Bartzelona, La 2 de Apolo
- 10: Zaragoza, Sala Lopez
- 17: Santander, Escenario Santander
- 24: Valentzia, La Rambleta

Maiatza
- 7: Las Palmas, Alfredo Kraus

Ekaina
- 16: Malaga, Teatro Cervantes

Azaroa
- 12: Dublin, Lost Lane
- 13: Londres, The Victoria
- 19: Paris, Studio de l'Ermitage
- 20: Brusela, zehazteke

57.359 debabarrendar botoa ematera deituta

Domekako hauteskundeetan erabakiko da nortzuek beteko dituzten Espainiako Kongresuko eta Senatuko aulkiak

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA

Agintaldiari dagozkion lau urteak bete barik, domekan Espainiako hauteskunde orokorrak egingo dira, Pedro Sanchez Espainiako presidenteak urriaren 5ean hala egitea erabaki eta gero, Diputatuen Kongresuak etxebizitza-krisiari aurre egiteko Gobernuaren bi dekretu atzera bota ondoren.

Igandeko hauteskundeetan Espainiako Gorteetarako eserlekuak daude jokoan; bai Espainiako Kongresukoak, baita Senatukoak ere. 57.359 debabarrendar daude deituta botoa ematera, Espainiako Estatistika Institutuak (INE) helarazi dituen datuen arabera: Mallabian 956; Ermuan 12.327; Eibarren 21.694; Soraluzen 2.968; Elgoibarren 9.028; Mendaron 1.538; Deban 4.573, eta Mutrikun 4.275. Horietatik 2.383 herritar (%4) Espainiako Estatutik kanpo bizi dira.

Domekako hauteskundeetako hautetsontzietan bi boto eman ahal izango dira: bata, zuria, Kongresurako botoa; eta bestea, sepia kolorekoa, Senaturakoa. Boto horiek eskualdeko 27 hauteslekutan eman ahalko dituzte debabarrendarrek, bakoitzak dagokionean. Elgoibarren 8 hautesleku jarriko dituzte, Eibarren 7, Ermuan 6, Deban 2 –oraingoan, Debako herriguneko mahai guztiak Agirre Jauregian– eta Mutrikun, Soraluzen eta Mendaron eta Mallabian hautesleku bana izango da. Goizeko bederatzietatik arratsaldeko zortzietara egongo dira hauteslekuak zabalik.

Eserlekuak jokoan

Kongresurako 350 eserleku aukeratuko dira, denera –Gipuzkoan 6, Bizkaian 8, Araban 4 eta Nafarroan 5–, eta Gipuzkoan Kongresurako hamaika zerrenda aurkeztu dira; 2023an aurkeztu zirenak baino bat gutxiago. Alderdi hauek aurkeztu dira Gipuzkoan: EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Fronte Zabala (FA), PP, Vox, Podemos, Partido Animalista (PACMA), Aulki Zuriak, Frente Obrero eta Euskadiko Langileen Alderdi Komunista (ELAK).

Senatuan, berriz, 208 eserleku aukeratuko dituzte, lau Gipuzkoan, eta zortzi zerrenda aurkeztu dira. Alderdi Popularra ez da aurkeztu, aliantza osatu duelako Voxekin. EH Bildu Esquerra Republicana alderdiarekin aurkeztuko da eta PSOE eta Fronte Zabaleko indarrak –Sumar, IU, EZAN, Batzarre– Aurrera Doan Kongresua (SDP) izeneko koalizioan aurkeztu dira.

Beherakada posta bidezko botoan

Hego Euskal Herrian 2.362.080 herritar daude deituta botoa ematera –Gipuzkoan 597.859, Araban 267.325, Bizkaian 959.702 eta Nafarroan 537.194–, eta horietatik 94.391 herritarrek (%4) eskatu dute posta bidezko botoa –epea atzo amaitu zen–. 2023ko hauteskundeetatik, eskaria %58,07 jaitsi da Estatuan, eta %59,01 Gipuzkoan. Gobernuaren Ordezkaritzak eta Correosek beherakada handi hori hauteskunde-egutegiari egotzi diote, 2023ko bozak uztailaren amaieran egin zirelako, udako oporraldian.

2023ko hauteskundeetan parte-hartzea %64,68koa izan zen Gipuzkoan, 67,61ekoa EAEn eta %68,29koa Debabarrenean. Euskadiko Jaurlaritzaren Euskal Soziometroak iragarri duenez, igandean ere partaidetza %60tik gorakoa izatea aurreikusten dute.

Bi debabarrendar zerrendetan

Alderdien Gipuzkoako hauteskunde-zerrendetan bi debabarrendar doaz. Bata, Alberto Albistegi Zamakola (Eibar, 1964), Aurrera Doan Senatua (SDP) koalizioko zerrendaburua da Senaturako zerrendan. Albistegi, futbol jokalari ohia izateaz gain, Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaile sozialista da 2024tik, eta PSE-EEren zinegotzia Eibarko Udalean. Bestea Bittori Zabala Fernandez (Elgoibar, 1967) da, eta bigarren doa Senaturako EAJren Gipuzkoako zerrendan. Zabala Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusia da 2015a ezkero, eta EAJko zinegotzi izan zen Elgoibarko Udalean. Horrez gain, Gilen Garcia Boyra debarra (EH Bildu) eta Ane Beitia Arriola elgoibartarra (EAJ-PNV) Senaturako eta Kongresurako ordezko gisa doaz.

Euskal soziometroak iragarri duenez, igandean partaidetza %60tik gorakoa izan daiteke



Domekan, 09:00etatik 20:00ak arte eman ahal izango da botoa. GOIENA

Emaitzen bilakaera 2016tik

Espainiako azken lau hauteskunde deialdietan (2016-2023) alderdiek Debabarrenean izan dituzten emaitzei erreparatuta, datuek argi erakusten dute 2016tik PSE-EEk eta EH Bilduk gora egin dutela boto kopuruan



Alderdien ekitaldiak Debabarrenean



UBANE MADERA

PSE-EE Arrasaten hasi zuen kanpaina, *Jendearen indarra* lemapean. "Herritarrak politika publikoen erdigunean jartzearen garrantzia" azpimarratu dute. Irudian, Alberto Albistegi, Senaturako zerrendaburua, Soraluzen, arrosak banatu ostean.



AINHOA ANDONEGI

EH Bildu *Posible egin* lemapean, Eibarren eta Elgoibarren egin ditu ekitaldi nagusiak. Nabarmendu dute "bloke erreakzionarioa garaitzeko bermea" direla. Irudian, Maddalen Iriarte, Olaia Duarte hautagaia eta Aitziber Aranberri, Elgoibarren.



EAJ

EAJ-PNV *Euskadi zaindu* lemapean, Eibarren eta Elgoibarren egin ditu kanpainako ekitaldi nagusiak. Azpimarratu dute EAJ dela "Euskal Etxea zaintzeko asegurua". Irudian, Aitor Esteban, Maribel Vaquero hautagaia eta Imanol Pradales, Eibarko Errebalen.



ASIER ORBEA

PP *Azkenean aldaketa* lemapean, Eibarren eta Elgoibarren egin ditu ekitaldi nagusiak. "Espainiari behar duen aldaketa eskaintzeko" helburua azpimarratu dute. Irudian, Jon Echeverria hautagaia, Elgoibarko plazan.

eta portzentajean. PSE-EE (PSOE) 2016an %17,46 izatetik –6.491 boto– 2023an lehen indarra izatera igaro zen, %28,23rekin –10.532 boto–. Joera berari jarraitu zion EH Bilduk; koalizio suberanista 2016an %15,91 –5.914 boto– izatetik 2023an %27,40 –10.223 boto– izatera igaro zen, eta bigarren lekuan kokatu, Alderdi Sozialistarengandik puntu bat baino gutxiagora.

EAJ-PNVk, berriz, hegemoniatik hirugarren tokira egin du. 2019ko azaroan Euzko Alderdi Jeltzalea gailurrera iritsi zen eskualdean, botoen %30,17 lortuta –11.673 boto–. Alabaina, 2023an atzerakada esanguratsua jasan zuen, %22,76ra jaitsita –8.492 boto–.

Ezker konfederalaren kasuan, gainbehera nabarmena izan da. 2016an indar bozkatuena izatetik, %27,71rekin –10.300 boto–, 2019an Podemos %14,56ra jaitsi zen, eta 2023an, haren lekukoa hartu zuen Sumarrek beherantz jarraitu zuen, botoen %10,42 –3.886 boto– eskuratuta; laugarren alderdia izan zen.

Azkenik, Alderdi Popularrak 2019an eta 2023an aurretik izandako beheraka zertxobait berreskuratu zuen arren –3.078 boto; %8,25–, eskualdean pisu txikia du. Voxek, berriz, are pisu txikiagoa du, baina 2016an eskuratu zuen %0,015etik –5 boto– %1,65ra igaro zen 2023an –615 boto–.

Gipuzkoako zerrendetan bi debabarrendar doaz: Alberto Albistegi eta Bittori Zabala

Hauteskundeak Barrenan

Espainiako hauteskundeei jarraipen berezia egingo die Barrenak domekan, bozketa egunean. Goizean hauteslekuak irekitzen direnetik gauera arte, emaitza guztiak jakin ostera arte. *Barrena.eus*-en hauteskundeetako emaitza guztiak izango dira ikusgai egunean bertan: herrietakoak, eskualdekoak, Gipuzkoakoak, EAE-koak eta Espainiakoak. Horrez gain, aurreko deialdietako emaitzen historikoa ere izango da ikusgai.

2016a ezkero, PSE-EEk eta EH Bilduk gora egin dute boto kopuruan eta portzentajean



Mikel Larrañaga eibartarrak jaso du bizitza osoko ibilbidearen saria. SD EIBAR

Mikel Larrañagari eman diote Gure Balioak saria

Gure Balioak sariak banatu zituzten atzo iluntzean, Elgoibarko Herri Antzokian

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA

Atzo iluntzean, Debegesak antolatuta, Gure Balioak sarien 12. edizioko ekitaldia egin zuten Elgoibarko Herriko Antzokian. Bertan, tokiko erakundeetako ordezkariak eta herritarrak batu ziren, bailaran ekintzailetzan eta gizarte ekimenetan nabarmendu diren eragile eta pertsonei aitortza egiteko. Ekitaldia Biraka Dantza Taldeak ireki eta itxi zuen.

Gazte Ekimena: Barre zentroa

Gazte Ekimenaren saria Nora Astigarraga elgoibartarrak jaso zuen, Elgoibarren kirola eta ongizate fisikoa uztartzen dituen Barre Mugimendu Zentroa jarri berri duen ekintzaileak. Epaimahaiak honako arrazoi hau aipatu zuen saria emateko: "Eskualdean duen errotzeagatik, merkatuaren benetako behar bati erantzuten dion negozio-eredu sendoagatik eta sari horrek proiektuaren garapenean izango duen bultzada zuzenagatik". Astigarragak Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkatearen eskutik jaso zuen saria: 2.000 euro eta urtebeteko aholkularitza pertsonalizatua.

Gizarte ekimena: Esperientziaren Eskola

Gizarte Ekimenaren saria Ikasten elkarteari eta bere Esperientziaren Eskola ekimenari eman zioten. Epaimahaiaren esanetan: "Epaimahaiak proiektu guztien maila aztertu ostean, bereziki baloratu du haren boluntariotza-kutsu handia, eskualde osoan duen errotze sakona eta gizarteari egiten dion itzulketa eta eragin zuzena". Amaia Enparan Laboral Kutxako ordezkariak eman zien saria: 2.000 euroko laguntza eta proiektua sustatzeko babesa.

Bizitza osoko ibilbidea: Mikel Larrañaga

Azkenik, aitortza nagusia, bizitza osoko ibilbideari eskainitako saria, Mikel Larrañaga Mandiolari (Eibar, 1946) eman zioten. Epaimahaiak baloratu du Larrañagak bere ibilbide osoan "eskualdeari egin dion ekarpena, euskararen, kulturaren, kirolaren eta elkarbizitza demokratikoaren arloetan". Oihane Ortega artistaren *Muin-fluxua* artelana jaso zuen sari gisa, Amagoia Pascual Debegesako zuzendariaren eskutik. Larrañaga, besteak beste, trantsizio osteko Eibarko lehen alkatea izan zen, eta *Euskaraz eta kitto!* udal-bando ezaguna kaleratu zuen. Horrez gain, lotura estua izan du SD Eibarrekin eta beste hainbat eragile eta ekimen sozialekin.

Mikel Larrañaga trantsizio osteko lehen alkatea izan zen Eibarren (1979-1983)

NIRE USTEZ

Ormolako lehoia edo Arnoko lehoia



ANGEL MARI TOBAJAS RAMOS
LEIZARPE ESPELEOLOGIA TALDEKOA

Gure eskualdeko jende askok entzun du Altamira, Santimamiñe edo Ekaingo kobazuloetako pinturen berri, eta jende askok izango du, era berean, Praileaitz kobazuloko Magdaleniar aroko zintzilikarioaren, Aizkoltxo kobazuloan topatutako Goi-Madeleine aldiko zizelkatutako makilaren edota Santakutz haitzuloko labar-grabatuen entzutea ere. Egia esan, ez da arraroa historiaurreko aurkikuntza horiek hain ospetsuak egin izana, haien salbuespenezko izaera eta garrantzia kontuan hartzen baldin baditugu. Baina bada oso kontuan izan behar dugun xehetasun bat: aurkitu diren haitzuloaren izenarekin izendatzen dira guztiak.

Agian, jende gehienari xehetasun txiki hori logikoa eta agerikoa gerta dakioke, eztabaidatu beharrik ez dagoen zerbait, azken batean aurkikuntzaren identitatea ezagutaraztea baino ez delako. Hala ere, praktikan eta tartean beste interes ezkutu batzuk daudenean, xehetasun txiki hori eztabaida latza bihur daiteke. Urrutira joan gabe, Mendaroko udaletxeko osoko bilkuran, asteazkenean, azaroaren 25ean, egin zen Ormolako lehoiaren aurkezpenaren hasieran sentitu genuen hori, Mendaroko alkatearen eta Mutrikuko Burumendi espeleologia taldeko ordezkarien hitzartzean. Halako iritzi-norgehiagoka bat izan zen, Ormolako lehoiarentzako izendapen egokienaz ari zirelarik. Hasteko, aurkikuntza Mutrikuko espeleologoek egin zutenez eta aurkezpena haiek hastekoa zutenez, pantailan *Arnoko lehoia* izenburua jarri zuten, eta izen hori ezagunagoa eta integratzaileagoa zela justifikatu zuten haiek. Hasieran onargarria eta sinesgarria iruditu daitekeen hori, baina, ez da faltsukeria handia besterik, Ormolako leizea Txoriaitz eta Kanpantzar mendien artean dagoelako, Mendaroko lurretan eta, beraz, ez duelako zerikusirik Arno mendiarekin, ez eta Mutrikuko udalerriarekin ere. Egia da espeleologook Ormolako leizea Arnoko karstean kokatzen dugula, baina izen hori geologikoa baino ez da, leizea zein kareharri-bloke handitan dagoen zehazteko eta ondoko Izarraitzeko Karstetik bereizteko erabiltzen duguna. Bitxia bada ere, Ormolako lehoiari Arnoko lehoia deitu zitzaion aurkezpenean, Arnoko Karstari ezelako aipamenik egin gabe, eta hori oso da susmagarria. Kontuan hartuta Euskal Herri gisa gure nortasunari eta identitateari ematen diogun balioa, uste dut behin hona ezkero, ez genukeela halakorik onartu behar.

GUTUNAK

EAJ-PSEren hipokrisia Urazandin

EH BILDU
ELGOIBAR

Urazandiko obren etenaldia urriaren 15ean amaitu bazen ere, oraindik lurzoruaren egonkortze-lanek jarraitzen dute. Testuinguru horretan, Gobernu taldeak Errezabalgo proiektu berriaren aurkezpenera deitu zituen Urazandiko auzotarrak, nahiz eta proiektu horrek oraindik Aldundiaren onespenik ez duen, eta agerian uzten du Gobernuaren eta Urazandiko bizilagunen kezken arteko aldea.

Auzotarren kezka nagusia zen jakitea nola egingo zaien aurre auzoko zenbait lekutan, etxebizitzetan eta eraikinetan azaldutako pitzaduren eta arazoen konponketei; eta Gobernu taldeak, arazo horiek oraindik obraren ondorio ote diren ala ez zalantza adierazi ondoren, alkateak premiazkoak ziren hainbat konponketa egingo zituela iragarri zuen.

Irraileko osoko bilkuran EH Bilduk premiazko arazoei aurre egiteko funts bat sortzeko eskatzen zuen mozioa Gobernu taldeak formalki ukatu ondoren, auzotarrekin izandako bileran, alkateak egindako iragarpenarekin, Gobernuak *de facto* EH Bilduren mozioa onartu zuen. EAJ-PSE taldearen hipokrisia eta itxurakeria agerian, nabarmenki.

Hori gutxi ez balitz, pitzaduren kontrolerako dianen txostenak hilero Udalera bidaltzeko konpromisoa ez da betetzen ari, nahiz eta EH Bildu eta auzotarrak hasieratik horiek eskatzen ibili diren. Datuen ezkutatze horrek kontzientea dirudi, berri jakin baitugu Arartekoa ikertzen ari dela Udala, Errezabalen inguruko isilkeriarengatik.

Urazandiko auzotarren etxebizitzen konponketak egitea ezin daiteke bigarren mailako kontua izan, eta Udalaren erantzukizuna da auzotarren ondasunak defendatzea, kanpoko beste interes batzuen gainetik.

Soraluze Blues Hotsak jaialdia

K.A.
ELGOIBAR

Aurreko asteburuan Soraluzen ospatu zen Blues Hotsak jaialdia dela eta, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu antolakuntzan aritu zineten guztioi, eskaini diguzuen kartel bikainagatik. Benetako luxua izan da hain maila handiko musikariez eta taldeez gozatzeko aukera izatea, bluesaren eta rockaren magia, emozio eta pasioa gure artean bizitzea. Zuen lanari, ahaleginari, dedikazioari eta musikarekiko maitasunari esker, une ahaztezinak bizi izan ditugu. Atzean lan handia, ilusioa, Ubaneren, Xarraren eta beste hainbeste lagunen ahalegina eta bluesarekiko benetako zaletasuna daude. Bihotzez eskertzen dizuegu egindako guztia, eta espero dezagun Blues Hotsak jaialdiak urte luzez jarraitzea bluesaren doinuak eta emozioak gure artean zabaltzen.

Ez dut bukatu nahi BARRENAkoei eskerrak eman gabe, jaialdiari merezi duen oihartzuna eskaintzeagatik. Debabarreneko herri guztien agendak astero gure esku jartzea plus bat da eskualdeko biztanleentzat. Eibartarren falta sentitzen dut; ea laster gure auzoko hurbilenak batzen diren proiektura!

Abenduaren 5ean, Durangora!

A.Z.
ELGOIBAR

Euskal Herrian Euskarazek abenduaren 5erako manifestazio nazionala antolatu du Durangon. Dagoeneko Euskal Herriko 50 eragile baino gehiago atxikitu dira; horien artean, euskalgintzako hainbat eragile, beste borroka esparru batzuetako herri mugimenduko eragileak eta sindikatuak.

Deitzaileen esanetan, euskararen egoera larriak euskararen aldeko borroka bizkortzea eta indartzea eskatzen du, berehalakoan eta nahitaez. Horretarako, euskarak lehentasun politiko eta sozial bilakatu behar du Euskal Herri osoan, eta hori han eta hemen gauden euskaltzaleon aktibazioari eta antolakuntzari esker lortuko dugu.

Argi ikusten ari gara eskuin muturra eta faxismoa

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera, Ainhoa Andonegi, Izaro Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi, Ander Gomez, Asier Orbea, Egoitz Unamuno, Garazi Mendieta, Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta, Ubane Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Maketazioa
Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 37 04
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetan kolaboratzaileek emandako iritzien gainelp erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Debako Udala · Elgoibarko Udala · Ermuko Udala · Mallabiko Udala · Mendaroko Udala · Mutrikuko Udala · Soraluzeko Udala · Debabarreneko Garapen Agentzia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

indartzen ari direla eta gainditutzat genituen diskurtso erreakzionario eta atzerakoiek lekua irabazi dutela leku askotan. Faxismoak gure herriaren, hizkuntzaren nahiz bestelako eskubide sozialen aurka egin du, eta, gaur egun, garai haien gorazarre egin eta haiek nostalgiaz oroitzen dituztenen ahotsak gero eta ozenago eta gertuago sumatzen ditugu.

Durangon, antifaxismoan oinarritutako euskararen aldeko borroka aldarrikatuko dugu; zapalkuntza guztiak gaindituko dituen Euskal Herri euskalduna eraiki nahi dugulako eta hori ezin delako beste modu batera egin. Faxismoari aurre egin behar diogu. Frantziako nahiz Espainiako estatuetatik aske izango den Euskal Herri euskaldunaren eta independentearen eraikuntza da faxismoari aurre egiteko Euskal Herrian Euskarazetik aldarrikatzen den bidea.

Abenduaren 5ean, beraz, 13:30ean, Landako Gunetik hasita, euskaltzale guztiak deituta gaude Durangoko kaleak betetzera, faxismoaren aurka eta Euskararen Errepublikaren alde! Goazen!

Hil bukaerako hitzordurako deia

SARE
ELGOIBAR

Ikusi ditugu, azken asteetan eta egunetan, Zaintza Epaitegitik eta Auzitegi Nazionaletik oinarri juridikorik ez duten eta mendekutik zein erabaki politikoetatik hartutako erabaki juridikoak, egoera gertuen eta hobekien ezagutzen duten profesionalen erabakiei muzin eginaz. Azken kasua Asier Ezeizarena izan da. Zigorraren parte handi bat beteta izan arren, eta, beraz, eskubide osoa izanda hirugarren gradura pasatzeko, Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak helegitea jarri du.

ETAk bere jarduera eten zuela 15 urte bete dira, eta anakronikotzat jotzen ditugu azken asteetan jasotako errekurtsoak eta erregresioak. Sare Herritarretik eta Etxeratetik argi diogu: elkarbizitza agertokiak helburu, konponbidearen eta bakearen aldeko lanean eta neurrietan lerratzen berresten gara. Oinarri juridikorik gabe eta mendeku gosez hartzen diren erabakiak euskal gizartearen gehiengoaren nahiaren aurkakoak dira.

Hauteskunde ziklo bete-betean sartu garelarik, espainiar estatuko zein frantziar estatuko administrazioei arduraz jokatzeko dei egiten diegu; aurrerapausuen garaia da eta ez iraganeko agertokiak elikatzekoa. Salbuespenean mantendu baino euskal preso, iheslari eta deportatuen auziaren konponbidean fokua jarriko duten instituzioen beharra da aldarrikatzen duguna.

Gaur, ostirala, hilak 27, 20:00etan, Kalegoen plazan elkartuko gara eta parte hartzeko gonbidapena egiten dizugu zuri ere, lerro hauen bitartez.

Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxera!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / *barrena@barrena.eus*




Ezagutarazi zure zerbitzua Debabarreneko herrietan

Zerbitzuen gida

24 € Hilean	24 euroren truke, hilero zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARRENA astekarian!
Erakusleihoa	BARRENA astekaria Debabarreneko erakusleiho ikusienetakoa da.
10.500 ale astero	10.500 ale banatzen ditugu Debabarrenean zehar DOAN!


AROZTEGIAK


DEKORAZIOA


ERABERRITZEAK

Jarri zure publizitatea


MEKANIKARIAK

BIENA S.L. AROZTEGIA
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

KM design
Kiru Muntatak
943 76 99 85
Pol. Amilkaga 3 BERGARA

GOKI erreformak
FATXADA BIRGAITZEAK ETA ERREFORMAK
ELGOIBAR 943 74 42 23
SORALUZE 943 12 57 41


ITURGINTZA

SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13 Soraluze
676 556 817 · 943 75 21 38

IMAR AROZTEGIA
Olaso industrigunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com


ELEKTRIZITATEA


IGELTSEROTZA

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com


PINTURAK

iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe aldaketak
Kurutz-gain industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

laibi 25 urte
Mendiola Industrialdea 13
Soraluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

IZAGUIRRE Igeltseritza
Eraikin berriak - Kalitatezko emaitza
Erreformak - Era guztietako igeltseritza
50 urteko esperientzia - 610 638 913


LEIHOAK

BIOK dekorazioa
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Jarri zure publizitatea

Elektrizitatea Igeltseritza
Iturgintza Pintura
EXGA S.L.
679 623 584 Soraluze

Jarri zure publizitatea

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK
Aluminio eta PVC aroztegia
662 234 609
odrilehioak@gmail.com
Sagar Erreka Kalea 2, 20580 SORALUZE
Mota guztietako leihoak, salmenta eta konponketak. Ateak, lehioak, partsianak, barandillak, altxo-sareak eta toldoak jartzen ditugu.

ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA
arrunta dekorazioka industriala
Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Zerbitzuen gidan agertu nahi izanez gero, deitu edo Whatssappera idatzi telefono zenbaki honetara:

688 76 96 57

Batera Elgoibarren Herri Ituna aurkeztuko dute abenduaren 3an

Ainhoa Andonegi

Duela bi urte jarri zuten martxan Batera Elgoibarren herri-ekimena, Elgoibarko Izarrak eta Udalak sustatuta eta Aldundiak, Jaurlaritzak eta Danobatek diruz babestuta. Ekimenaren helburu nagusia da hamar urte barru Elgoibar herri euskaldunagoa izatea. Horretarako, 2025ean, Elgoibar herri euskaldunagoa izateko bete behar diren zazpi baldintza adostu zituzten 103 herritarren artean, eta 2026an, berriz, baldintza horiek betetzen joateko har daitezkeen konpromisoak ere zehaztu dituzte.

150 lagunek parte hartu duten bi urteko lan-prozesua izan da, eta prestakuntza-fasearen azken fasera heldu dira orain: Herri Ituna aurkeztuko dute abenduaren 3an, 19:00etan, Aita Agirren; Elgoibar hamar urte barru euskaldunagoa izateko herri-akordioa, hain zuzen ere. "Elgoibartarrok euskaldunagoak izateko ametsak biltzen gaitu, eta horretarako konpromisoak jaso ditugu herri-akordioan", adierazi dute eragileek. Herri moduan pentsatu, erabaki eta egitea dago herri-itunaren atzean, batera eta norabide berean jarduteko konpromisoa.



Bilera bateko irudia. A.O.

Izena emateko

Elgoibar herri euskaldunagoa izateko nahia duten elgoibartar guztiak daude aurkezpenera gonbidatuta, baina komeni da aurretik izena ematea, antolakuntza-lanak errazteko. Bi telefono eman dituzte horretarako: 943 74 16 26 (Imanol) eta 943 74 43 66 (Kristina).

Bazkide kanpaina jarri du martxan Elgoibarko Tokiko Energia Komunitateak

A.A.

Udalak lagatako udal estalkietan plaka fotovoltaikoak jartzean oinarritzen da TEK proiektua; alegia, udal-teilatuetan eguzki-plakekin sortutako energia kontsumituko dute bost kilometrorainoko erradioan kokatutako udalerriko etxeek, denda txikiek eta ostalariek, udalerrian bertan ekoitzitako energia berriztagarria eskuratu ahal izateko.

Orain, proiektua ezagutzera emateko eta bazkideak erakartzeko asmoarekin, informazio-kanpaina jarri dute martxan, "komunitatea osatzeko eta elkarrekiko autokontsumoa herritar guztiengana gerturatzeko". Helburu argia dutela zehaztu dute: Elgoibarren %100 berriztagarria eta zero kilometrokoa den energia kontsumitzea sustatzea.



Eguzki-plakak, kiroldegiko teilatuan. A.O.

212 etxe eta negozio txiki

TEK Elgoibarrek "hurbileko azpiegitura fotovoltaikoa" jarri du elgoibartarren eskura, karbono-aztarna murrizteko eta kideen elektrizitate-faktura jaisteko, etxebizitzetan eta lokaletan obrarik edo instalazio indibidualik egin beharrik gabe. Komunitateak 170 kW-ko potentzia fotovoltaikoa du instalatuta, eta 340 partaidetza daude eskuragarri, Elgoibarren gehienez 212 etxeri eta negozio txikiri estaldura emateko.

Zabalik dago baratze publikoen zozketarako izena emateko epea

Elgoibarko Udalak baratze publikoak herritarren eskura jarriko ditu berriro ere. Interesatuek izena eman beharko dute HAZen edo Udalaren egoitza elektronikoan, abenduaren 7rako.

Baratze publikoen helburua da herritarrei beren barazkiak landatzeko aukera ematea, lurrarekin eta naturarekin lotura estuagoa izateko eta herriko espazio publikoak elkarrekin baliatzeko. Eskaintzan, gehienez, 30 baratze egongo dira –Udalak bi baratze gorde ditzake bere erabilerarako–. Ortuak Urruzunon daude, kalistenia parkearen ondoan.



Bi lagun ortuan, laenan. ASIER ORBEA

Hilaren 9ra arte eman daiteke izena jaiotzen lehiaketan



Iazko lehiaketaren irudi bat. A.O.

Gabonetako jaiotzen lehiaketa antolatu dute, eta parte hartzeko izena eman behar da. Abenduaren 9ra arte dago izena emateko aukera, *elgoibarkojaiotzak@gmail.com* helbidera idatzita. Gehienez sei laguneko taldeak izan daitezke. Lehiaketa bera abenduaren 13an egingo dute, 10:00etatik 12:00etara. Goizean aurkeztu beharko dira lanak, eta meza ostean egingo dute sari-banaketa. Ondoren, jaiotza guztiak ikusgai jarriko dituzte Kultur Kafean.

LAGUNAK
colchonería textil hogar

Finantzatu zure koltxoia

Lagunak Colchoneria Textil Hogarrek Laboral Kutxarekin lankidetzan dihardu, saltokietako erosketa finantzatuz.

- Kuota erosoetan ordaintzea
- Bankuz aldatu gabe
- Modu erraz eta seguruan
- Ia paperik gabe
- LABORAL Kutxaren bezero izan edo ez



Etorri eta informatu zaitez!

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

JBL BOOMBOX 3 BOZGORAILUAK

349,90 €



- Bluetooth-a
- Metalezko heldulekua
- Sonia larri sakonagoak
- 24 ordura arteko autonomia
- Urarekiko eta hautsarekiko erresistentea

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

NIRE USTEZ

Emakume langileen borroka



GORANE AYESTA MAIDAGAN
DEBA BAILARAKO KONTSEILU SOZIALISTAKO KIDEA

Azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria matxista salatu genuen. Baina indarkeria horren aurkako borroka ezin da egun bakarrera mugatu; indarkeria matxista ez da kasu isolatuen ondorioa, emakume langileok bizi dugun zapalkuntza estrukturalaren adierazpen gordinenetako bat baizik.

Horregatik, ezinbestekoa da azaroaren 25eko aldarrikapenak emakume langileen eguneroko bizi-baldintzen aldeko borrokekin lotzea. Azaroaren 11ko greba orokorra horren adibide argia izan zen. Etxebizitza eskubidea eta bizi-baldintza duinak aldarrikatu genituen, bi auzi horiek emakume langileen egoeran eragin zuzena baitute. Etxebizitza eskuratzeko zailtasunek, prekarietate ekonomikoak eta independentzia ekonomikorik ezak emakume askoren mendekotasuna areagotzen dute, eta indarkeriazko egoeretatik ateratzeko aukerak mugatu. Beraz, indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko, ezinbestekoa da haren oinarri materialei aurre egitea eta emakume langileen bizi-baldintzak eraldatzea.

Bestalde, hauteskundeen atarian, alderdi politikoen promesetatik harago joan behar dugu. Ez da nahikoa neurriak agintzea, emakume langileen babesa eta baliabide materialak bermatzen ez badira. Horregatik, kaleetako antolakuntza eta borroka ezinbestekoak dira.

Azaroaren 11ko grebak eta 25eko mobilizazioek norabide berean egin dute bat: emakume langileen borroka indartzea. Ez dugu indarkeriarik gabeko gizartea soilik aldarrikatu behar, hori posible egingo duten baldintzak eraiki baizik. Bide horretan, borroka ez da hauteskundeekin edo egun seinalatuekin amaitzen; egunero eraiki behar dugu, modu kolektiboan.

KLIK

Txantxangorria



ALBERTO LOYOLA
ARGAZKILARIA



Txantxangorria, Euskal Herriko neguaren ikur. Txantxangorriak agertzearekin batera, negua ere badator. Euskal Herriko txoko eta bazterretan neguaren mezulari bihurtzen dira. Txikiak izan arren, gure herriaren ikur eta naturaren edertasunaren parte dira.

SEMAFOROA

Ezinduentzako aparkalekuak

"Ikastolako aparkalekuan ezinduentzako gordeta daude leku batzuk, eta sarri aurkitzen ditugu okupatuta, hor aparkatzeko baimenik ez duten autoekin. Badakit jende asko denbora gutxirekin joaten dela ikastolara umeak lagatzera, baina hala ere leku horiek errespetatu egin behar dira".



Kakak eta zaborra





"Azkenaldian txakur jabe askok erabiltzen du Errosario kaletik errekara doan kalexka takurrak kaka egitera eramateko, eta jakina, han lagatzen dute kaka, jaso gabe. Inguru horretako zakarrontzi ondoan zabor poltsak lagatzen hasi da jendea, ez dakit protesta gisa ote den, baina iruditzen zait hori ez dela bidea. Txakur jabeek kaka jaso behar dute, eta zaborra edukiontzietara bota behar da. Bizikidetza arauak errespetatu, mesedez".

Banda, bikaina

"Udal musika banda txalotu egin nahi dut; beste behin ere, aho-zabalik utzi gaituztelako. Sekulakoa izan zen zapatuko emanaldia. A zelako zortea daukagun Elgoibarren horrelako musika banda batekin. Jarraitu horrela; zoragarriak zarete!".

elgoibar@barrena.eus / 688 65 56 58

Eliza bete du Udal Musika Bandak, Santa Zeziliako kontzertu berezian

Ana Belen Garcia organo-jolea izan da aurtengo gonbidatu berezia

Ainhoa Andonegi

Santa Zezilia Eguna izan zen domekan, musikarien zaindariaren eguna, eta, horren harira, musika izan zen protagonista joan zen astean Elgoibarren. Musika Eskolako ekintzak eta ikastolakoen kalejira izan ziren horietako ekintza batzuk, eta zapatuan Udal Musika Bandak kontzertua eman zuen, parrokian.

Gonbidatu berezia

Goizean kalejira egin zuten herrian zehar, eta eguerdian kontzertua eman zuten San Bartolome parrokian. Azken urteetako bidetik etorri zen zapatukoa ere, eta gonbidatu berezia izan zuten emanaldirako: Ana Belen Garcia organo-jolea. Musikari andoaindarrak ibilbide luzea dauka musikan: piano-jotzaile eta klabezin-jotzaile trebatu zen Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, eta organoa jotzen Esteban Elizondo eta Esteban Landart irakasleekin ikasi zuen, Musikenen. Ondoren, Loic Mallie, Brett Leighton eta Michel Bouvard izan zituen irakasle, eta Cristobal Halffter Organo Konposizio Lehiaketaren 33. edizioa irabazi zuen. Gaur egun, Donostiako Santa Maria del Coro basilikako organista titularra da, eta 1863ko Cavaille-Coll organo historikoaren ardura du. Era berean, Europako, Amerikako eta Asiako hainbat herrialdetan aritu da kontzertuak ematen, bakarlari zein kolaboratzaile.



Parrokiako koroan kokatu ziren musikariak. J. CABRERA



Eliza txiki geratu zen. ASIER ORBEA

Elizako organoaren inguruan kokatu ziren bandako musikari guztiak, Gorka Mujika zuzendari zutela, eta herritarrek aldarearen aurrean jarri zuten pantaila handi batetik ikusi ahal izan zituzten musikariak. Bete egin zen eliza, eta zutik ere jarraitu zuten emanaldia hainbat herritarrek. Agerian geratu da, beste behin ere, bandak herrian duen estimazioa.

Asier Lizarraldek Gipuzkoako enpresari gazteen sarietako bat jaso du

A.A.

Gipuzkoako Enpresari Gazteen Elkarteak (Ajebask Gipuzkoa) banatu dituen hiru sarietako bat eskuratu du Lizagasar Sagartokiko Asier Lizarralde Arrillaga elgoibartarrak. Lurraldeko enpresari gazteen talentuari ikusgarritasuna emateko, erreferenteak sustatzeko eta lurraldean jarduera ekonomikoa, enplegua, berrikuntza eta eragina sortzen dituzten ekimenak aitortzeko banatzen dituzte sariok. Asier Lizarralderi Enpresa Jasangarritasunaren Ecoembes Saria eman diote; hau da, enpresaren kudeaketan jasangarritasuna modu eraginkorrean txertatzeagatik jaso du aitortza.



Lizarralde, saria jaso zuen unean. SAREA

Lau peoi kontratatuko ditu Elgoibarko Udalak

Langabezian dauden lau lagun kontratatuko ditu Udalak peoi lanetarako, lau hilabetez, Lanbidek enplegua sustatzeko ematen dituen dirulaguntzei esker. Langileok Obra eta Zerbitzuen Brigadari lagunduko diote espaloiko eta oinezkoentzako pasabideetako bideak garbitzen, garbiketa arrunta indartzeko, sastrakak garbitzeko lanekin batera. Lanpostuetara aurkeztekoo hainbat baldintza bete behar dira: B gidabaimena izatea, igeltserotza-, iturgintza-, elektrizitate- edo pintura-lanetan Lanbideko ziurtagiriarekin egiaztatutako lan-esperientzia; langabezian egotea eta Lanbiden izena emanda eta enplegu-eskatzaile gisa alta emanda egotea; Elgoibarren, Deban, Mutrikun, Mendaron edo Soraluzen bizi izatea; eta ALPES 2025 deialdiko baldintzak betetzea.

Izena emateko, Lanbideren Elgoibarko egoitzara jo behar da, edo *www.lanbide.eus* webgunera, azaroaren 30era arte.





Martitzeneko osoko bilkura. UDALA

27,5 milioi euroko aurrekontua onartu du Elgoibarko Udalak 2027. urterako

EAJren eta PSEren aldeko botoekin egin du aurrera; Bilduk kontra bozkatu du

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Udalak 27.484.560,15 euroko aurrekontua onartu du 2027rako; iazko hasierako aurrekontua baino %17,36 handiagoa –4.068.110,93 euro gehiago– eta iazko behin betikoa baino %7,75 handiagoa –1.977.839,51 euro gehiago–. EAJren eta PSEren aldeko botoekin onartu dute proposamena, eta EH Bilduk kontra bozkatu du.

Inbertsioak

Inbertsioen atalak jasoko du 2027an ere diru kopururik handiena: guztira, 5.541.347,52 euro; iaz baino %128 gehiago. Nabarmentzekoen artean, hauek aipatu dituzte: Errezabal egoitzako aparkalekua (1.500.000), Usetxeko obra (1.112.724,52), Sigmako urbanizazioaren bigarren fasea (500.000), Altzolako saneamendua (450.000), herri-bideen konponketa (425.000), kirol-ekipamenduak (410.000) –atletismo pista berria eta eskalada praktikatzeko espazio berria–, landa-auzoetako inbertsioak (320.000), higiezinen konponketak (237.800) eta Arriagako sarbidea (150.000). Horrez gain, beroari aurre egiteko ur-txorrotak jartzeko proiektua landuko dute, klima-aldaketara egokitzeko udal estrategiari jarraipena emateko.

Udalak nabarmendu du mailegurik gabe egingo diotela aurre aurrekontuari, kanpotik jasoko dituzten dirulaguntzei esker, eta beste erakunde batzuekin elkarlanean lan egiteari garrantzia eman diote. "Udal aurrekontutik kanpo, beste administrazio eta erakunde batzuek Elgoibarren sustatzen dituzten inbertsioek 65 milioi euro baino gehiagoko bolumena dute; Elgoibarrek inbertsioa erakartzeko duen indarraren erakusle", adierazi dute.

Bestelakoak

Zerbitzu publikoen alorrean, herritarren egunerokoan eragin zuzena dutenak "sendotzea" du helburu Udal Gobernuak. Horrela, liburutegi zerbitzua larunbatetan irekita egongo da, eta Mintxetako muskulazio-gelaren ordutegia zabaldu egingo dute, erabiltzaileen eskaerei erantzuteko. Horrekin batera, gaztelekuan bidelagun figura sortuko dute. Udalaren modernizazio-prozesuak ere jarraipena izango du 2027an, "eraginkortasuna eta herritarrekiko komunikazioa" hobetzeko. Horretarako, pantaila digitalen hobekuntzan eta udal webgune berriaren garapenean aurrera egiteko asmoa azaldu dute.

Bildu, kontra

Udal gobernuak esan du aurrekontu hauek udalbatzako talde guztiekin batera eraikitzea izan dela helburua. Horretarako lau bilera egin dituztela azaldu du, bi batzordean eta beste bi batzordetik kanpo. EH Bilduk esan du haien proposamenei emandako erantzunetan zehaztasun "gutxi" zegoela, eta "konpromiso falta" ikusi dutela. Haien iritziz, aurrekontu batzuk ezin daitezke zenbakien arabera bakarrik neurtu, garrantzi handia baitu, zein behar lehenesten den eta baita etorkizuneko erronkak nola gertatzen diren. Azaldu dute EH Bilduren proposamenak ez direla berriak, eta gaineratu dute EAJ-PSEren gobernuak legealdi hasieran hartutako konpromiso asko gauzatu gabe daudela oraindik: "Akordioa lortzen saiatu gara, alkatearekin bildu gara, baina ituna egiteko borondatea behar da alde bietatik". Aurrekontuei neurgailuak falta zaizkiela ere azpimarratu dute: "Gobernuak guri emandako erantzunetan ez dago ia ezer horietatik". Beraz, "behar garrantzitsuak direnak bazter laga direlako eta horiek integratzeko modurik egon ez delako" kontrako botua eman dute.

Aitziber Aranberri izango da EH Bilduren alkategaia

A.A.

Elgoibarko EH Bilduren mahai politikoak Aitziber Aranberri Uranga proposatu du alkatetzarako hautagai 2027ko udal hauteskundeetarako. Aranberri EH Bilduren zinegotzia da Elgoibarko Udalean, 2019a ezkero, eta taldeko bozeramailea izan da 2021etik aurrera. Administrazio eta Finantzetako goi-mailako teknikaria da, eta egun, Politika eta Administrazio Zientzietako Graduko azken ikasturtea ari da egiten. Politikan sartu aurretik, Uvesco Taldeko (BM Supermerkatuak) langile izan zen.



Aranberri. LAGATAKOA

Zuzenean emango du BARRENAk Kantari ikuskizuna, bihar, zapatua

Ikastolako eta Herri Eskolako 125 bat ume igoko dira Herriko Antzokiko oholtzara euskaraz abestu eta dantzatzera



Kantari ekitaldiko irudia. ABAO

A.A.

Elgoibarrek Kantari ikuskizuna hartuko du bihar, eta Barrena Komunikazioak zuzenean emango du, *barrena.eus* atarian. Euskarazko kantak eta dantza uztartzen dituen egitasmo horretan, Herri Eskolako eta Ikastolako 7 eta 12 urte arteko 125 gaztetxo inguruk parte hartuko dute, eta taldeka prestatutako abestiak eta koreografiak oholtza gainean aurkeztuko dituzte. Antolatzaileek argitu dute ez dela lehiaketa bat, eta egitasmoaren helburua gaztetxoen artean euskarazko kantak sustatzea dela. Besteak beste, ETS, Bulego, Kai Nakai, Hesian, Sukena, Nogen eta Gatibu taldeen kantuak interpretatuko dituzte.

Elgoibarko Udala eta Abao Komunikazio Agentzia aritu dira antolakuntzan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin eta BARRENA hedabidearen laguntzarekin. Antolakuntzak bereziki nabarmendu nahi izan du ikastetxeek proiektuan izan duten inplikazioa; Elgoibarko Herri Eskola eta Elgoibar Ikastola bidelagun izan dituzte hasieratik, eta familien zein parte-hartzaileen inplikazioa ere handia izaten ari da.

Lau saio

Emanaldiak bihar izango dira, hilak 28, Elgoibarko Herri Antzokian. Guztira, lau saio izango dira, 16:30ean hasita, eta emanaldi bakoitzean bost taldek hartuko dute parte. Ikuskizuna herritar guztiei dago irekita, eta edonor joan daiteke ikustera, doan, eta aurretik sarrerarik eskuratu beharrik gabe.

"Nire gaitasunaren mugan ibiltzea gustatzen zait"

IOSU MERINO ESKALATZAILEA

'Nire mugen gainetik' emanaldia aurkeztu zuen Merinok joan den astean, Morkaikoren mendi emanaldien zikloaren barruan



Ainhoa Andonegi

Urte osoan egin diren eskalada eta alpinismo jarduera garrantzitsuenak saritzen ditu EDME Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioak, eta horietako sari bat jaso zuen iaz Iosu Merino elgoibartarrak, Suitzan eta Italian eginiko izotz-eskaladagatik. Morkaikoren mendi emanaldien barruan eman du esperientzia horren berri.

***Nire mugen gainetik* emanaldiarekin diharduzu; zein mezu zabaldu nahi duzu?**

Zabaldu nahi dudan mezua da oztopoak gainditzeko gai garela guztiok. Askotan, buruan mugak ikusten ditugu, blokeatu egiten gara eta uste dugu ez garela gai, baina ni konturatu naiz eskaladari esker muga asko gainditzeko kapaz garela. Nik, behintzat, beldur asko gainditu ditut eskaladari esker.

Zer da eskalatzea?

Eskalada erronka handi bat da, pertsonalki gainditzen laguntzen didana. Arazoak beti sortzen dira, bizitzako alor guztietan, eta norberak egin behar du horiek gainditzeko ariketa. Gogoratzen dut Cerro Torre egin nuenekoa. 25 urte nituen, oso gaztea nintzen, eta oso esperientzia gogorra izan zen hura. Oso eguraldi txarra egin zigun, espedizioa luzatu egin zitzaigun eta ia ez geneukan jatekorik... Ordutik aurrera, ez nintzen inoiz ere kexatu amak etxean jartzen zidan jatekoaz. Horrelakoetan konturatzen zara zelako suertea daukagun, eta zenbat kexatzen garen. Egoera gogor haiek bizi ostean, eskerrak ematen ikasten duzu, eta daukazunarekin konformatzen. Oso garrantzitsua da daukazuna baloratzen ikastea, eta horrekin lasai bizi izaten ikastea.

Fedme saria eskuratu duzu, izotz-eskaladan zabaldutako bide batengatik; konta egiguzu nola izan zen.

David Lopez *Troner*-ekin joan nintzen, orain dela bi urte, izotz-eskalada egitera. Aspalditik ezagutzen dugu elkar, eta badakigu bakoitzaren mugak zein diren. Hasi ginenean, gomendio asko eman nizkion. Oso gaztea zen nire aldean, eta, denborarekin, gure gaitasunak berdindu egin ziren. Gaur egun, hura dago nire gainetik. Asteazken batean deitu zidan, ez zuela inor topatzen eskalatzera joateko, eta harekin joango ote nintzen galdetu zidan, ostiralean. Baietz esan nion, baneukala lanean egunen bat jai hartzeko aukera, baina ez nekiena zen Dolomitetara joatea zela haren asmoa, bi asterako. Azkenean, moldatu egin nintzen, eta egin genuen espedizioa.

Urte asko egon zinen izotzetan eskalatu gabe; nolakoa izan zen sentsazioa?

Oso ona. David oso soka-lagun ona da. Gauzak oso argi ditu, esperientzia handia dauka, eta dena oso ondo joan zen. Hasieratik sartu ninduen zailtasun-egoeretan, eta ikusten nuen hari ere kostatzen zitzaiola pasatzea. Hura ikusita, uste nuen ezingo nuela bide hura pasatu, baina lortu egin nuen. Burua lasai mantentzea ezinbestekoa da muturreko egoera horietan, eta nik nahiko ondo kontrolatzen dut neure burua, baina *Troner*-ekin joaten naizen oro nire mugen gainetik ibiltzen naiz. Eta hori gustatzen zait gehien, nire gaitasunaren mugan ibiltzea; bestela, ezer egin ez dudan sentsazioarekin geratzen naiz.

> **"Egoera gogorrak bizi ostean, eskerrak ematen ikasten duzu, eta daukazunarekin konformatzen"**

> **"Eskalada Elgoibarko kirol eskaintza publikoaren barruan egotea nahiko nuke"**

Eskalatzeaz gain, instruktorea ere bazara.

Ez daukate zerikusirik norberak eskalatzeak eta besteei erakusteak. Niri gehiago gustatzen zait gutxi dakienari irakastea asko dakienari baino. Guztiek dituzte euren mugak, eta ni saiatzen naiz nor bere mugetara eramaten; azken batean, muga horiek gainditzeak ematen du satisfazioa.

Elgoibarren rokodromo berria sortzeko lanean zabiltzate. Ba al dago herrian eskaladarako zaletasunik?

Gaur egun, beste kirol batzuetan bezala, eskaladan parte-hartzaile kopurua handitu egin da nabarmen. Elgoibarko kiroldegia eskaladan aitzindaria izan zen, Gipuzkoa eta Euskadi mailan rokodromorik onenetakoa zuten herrien artean zegoen; Gipuzkoako eskalada txapelketak Elgoibarren eta Donostiako Pio Barojan egin ziren. Oraingo egoerak, egia esan, kezkatu egiten nau; izan ere, eskalada kirol eskaintza publikoaren barruan egotea nahiko nuke. Muskulazio-gelaren eta igerilekuen hobetze-lanek eta eskaintza berriak ez dute eragin ekonomikorik izan erabiltzaileengan. Ez dut ulertzen zergatik planteatzen den horrelakorik eskaladarekin.



Merino, sokatik zintzilik. LAGATAKOA



Merino, izotz-eskaladan. LAGATAKOA

Raul Mira eta Lucia Gonzalez izan dira azkarrenak Besa CX Elgoibar ziklo-krosean

Asturiasko Nesta MMR taldeko bi txirrindulari gailendu dira proba nagusietan


Mintxeta baserri azpiko zelaian. MIKEL ASKASIBAR

Asier Orbea ELGOIBAR

Bigarrengoz jokatu zuten, aurreko zapatuan, Besa CX Elgoibar ziklo-krosa, Mintxeta inguruan, estreinakoz nazioarteko izaerarekin. Iaz, eguraldi euritsuak baldintzatu zituen jokatu zituzten lasterketa gehienak. Aurten, hego-haize bolada indartsuei egin behar izan zieten aurre txirrindulariek eta ikusleek, jardunaldiaren lehen zatian, eta euriari bigarrengoan. Hamaika kategoriatan lehiatu ziren 250 bat txirrindulari, 09:30etik 15:00etara bitartean.

Asturiarren arteko lehia emakumezkoetan

Emakumezkoen proba nagusian elite mailakoak eta 23 urtez azpikoak lehiatu ziren, eta bi txirrindulari asturiarrek lortu zituzten lehen eta bigarren postuak. Lucia Gonzalez Blanco (Nesta MMR Cycling) gailendu zen, 45 minutu eta 28 segundoko denbora eginda. Espainiako ziklo-krosean erreferente nagusietako bat da txirrindulari asturiarra. Lointek euskal taldearekin egin zuen debuta txirrindulari profesional gisa, 2010ean, eta, 15 urteko ibilbidean, World Tourreko hainbat lasterketatan parte hartu du. Garaipen nagusiak, baina, ziklo-krosean lortu ditu Asturiasko Nesta MMR taldean diharduen 36 urteko txirrindulariak, sei alditan irabazi baitu Espainiako Txapelketa; azkenekoz, 2023an. Elgoibarren minutu bat eta 7 segundoko aldea atera zion beste asturiar bati, Unicaja Gijon taldeko Sara Vega Cuetori. Nahia Arana Quintanilla (Occient Miribilla) sailkatu zen hirugarren postuan, eta Berangokoa izan zen lehen euskalduna, 46.56ko denborarekin. Arana, gainera, 23 urtez azpikoen kategoriako azkarrena izan zen.

Mira Bonastreren erakustaldia

Gizonezkoen lasterketa nagusian, erakustaldia eginez gailendu zen Raul Mira Bonastre (Tibi, Alacant, Espainia, 2004). Nesta MMR taldeko txirrindulariak ordu bat, sei minutu eta 25 segundoan osatu zituen zirkuituari eman beharreko zortzi itzuliak, 20,9 km/h batez besteko abiaduran. Irabazlearengandik 47 segundora ailegatu zen Gonzalo Inguanzo Macho (Supermercados Froiz); Mario Junquera San Millan igo zen podiumeko hirugarren koskara. Iazko irabazle Aitor Hernandez ermuarra, berriz, seigarren postuan sailkatu zen.

Asier Azkaratek eta Aitziber Olaizolak irabazi dute Euskal Herriko Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketa

Asier Orbea ELGOIBAR

Aiastiako bolatokian jokatu zuten, aurreko zapatuan, Euskal Herriko 36. Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketaren azken jardunaldia, seigarrengoa. Bergara taldeko kide Asier Azkaratek lau txirloko aldearekin hasi zuen azken tiraldi erabakigarria, eta aldeari eutsi zion, gutxigatik izan bazen ere. Azkarateren taldekide Anartz Esteban eibartarra izan da txapeldunorde, Azkaratek baino txirlo bat gutxiago botata. Azkaratek 22 txirlo bota ditu sei jardunaldietan, eta 21 txirlo Estebanek. Elgeta taldea ordezkatzen duen Bittor Astigarraga eibartarrak eskuratu du sailkapen nagusiko hirugarren postua. San Migel taldeko bi bolari sailkatu dira, hurrenez hurren, laugarren eta bosgarren postuetan: Jon Ibarluzea eta Xabier Loiola.

Hiru titulu San Migel taldekoentzat

San Migel taldeko bolariak maila onean aritu dira txapelketa osoan, eta etxean jokatutako azken jardunaldiari ere atera zioten probetxua: hiru txapel irabazi zituzten. Batetik, emakumezkoen txapela Aitziber Olaizolak eskuratu zuen. Bestetik, bikotekako lehian, Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea lehengusuen burura joan ziren jokoan zeuden txapelak. Laugarren postuan hasi zuten azken jardunaldia, baina Aiastiako bolatokiak sekretu gutxi du haientzat, eta tiraldia eta sailkapen nagusiko lehen postua lortu zituzten. Alex Campos eta Ganix Rodriguez eibartarrak izan ziren txapeldunorde, bikoteka, eta Mikel Almorza eta Asier Azkarate bergararrentzat izan zen hirugarren postua. Azkenik, taldeka, San Migel A taldea gailendu da, Asola Berri eta Elgeta taldeei aurrea hartuta. Aitziber Olaizolak, Angel Ibarluzeak, Javier Osorok, Unai Loiolak eta Xabier Loiolak osatu dute taldekako talde irabazlea.


Gizonezkoen podiuma. LAGATAKOA


Taldekako Euskal Herriko txapeldunak, San Migel A taldea. LAGATAKOA

Mikel Laboaren oihartzuna ekarriko du domekan 'Ai, gure juaneteak' antzezlanak

San Agustin aretoan izango da emanaldia, 18:00etan hasita, euskaraz

Ainara Argoitia MENDARO

Mikel Laboa musikariaren (Donostia, 1934-2008) zenbait kantaren hitzen berrinterpretazioan oinarritutako obra da *Ai, gure juaneteak*, Patxo Telleria aktoreak (Bilbo, 1960) idatzi eta gorpuztutakoa. Ikuskizun hibridoa da, hitzak eta zuzeneko musika uztartzen dituena. Oholtzan, Patxo Telleriaz gain, bi musikari arituko dira: Adrian Garcia de los Ojos –ikuskizunaren zuzendari musikala ere bada– eta Maider Lopez. Obraren zuzendari eszenikoa, berriz, debabarrendar bat da: Jokin Oregi soraluzetarra. San Agustin aretoan izango da emanaldia, 18:00etan hasita.

"Hamarkadak pasatu dira kanta horiek konposatu zirenetik, baina ez dute galdu orduko indarra. Eta, horrexegatik, gure ondare emozionalaren ezinbesteko zatia direlako, izan dut kantok berregituratzeko eta birkodetzeko ausardia. Gureak direlako. Nireak direlako", dio Patxo Telleriak. Jatorrizko kantuen zati laburrak kantatuko dituzte, tarteka, oholtzan, baina gaur egungo begiradatik. Joxan Artzek, Xabier Letek, Joseba Sarrionandiak eta abarrek idatzitako hitzak izango dira abiapuntu, beraz, eta "desegituratuta eta desitxuratuta" aurkeztuko dituzte; berdin, melodia. Nabarmendu dute eszenaratzea "minimalista" izango dela, protagonistei, "hitzari eta musikari, garrantzirik handiena emateko", eta Zumetaren iruditeria estetikoa baliatuko dutela eszenografiarako.

"Gaztetan uste nuen Laboak jiganteentzat kantatzen zuela, titanentzat, kolosoentzat. Gizonen hartu-emanak ontzeko eta zama aroa laburtzeko gai ziren jiganteak. Lehen, gorputzarena bezala, orain, gogoaren zilborrestea eteteko gai ziren titanak. Azken orduan arnasa galdu beharrarekin larritzen ez ziren kolosoak. Laboaren kantak ikasi nituen garaian, jigantea nintzela uste nuen, titana, kolosoa; orain, norabiderik gabe doan gizabere galdu bat besterik ez naizela dakit. Lehen baino txikiagoa. Lehen baino jakintsuagoa. Horregatik dakit Laboak, heroientzat barik, ni bezalako gizabere galduentzat kantatu zuela, lantzean behin jiganteak, titanak, kolosoak direla amesten duten gizabere galduentzat, lantzean behin jiganteak, titanak, kolosoak izan nahiko luketen gizabere galduentzat", dio zuzendariak sinopsian.



Patxo Telleria, eta atzean, bi musikariak. LAGATAKOA

Hirugarren izan da Hodei Ezpeleta Euskal Herriko Aizkora Txapelketan

A.A.

Hodei Ezpeleta hirugarren izan zen, domekan, Euskal Herriko Aizkora Txapelketan. Handia egin du, baina, hala ere, penatuta dago mendaroarra, onena eman ezin izan zuelako. "Sailkapenak itxuratu egin du egindako lana, baina ez dizut esango gustura nagoenik. Ez nuen etxean egindako lana plazan erakutsi. Azken bi asteetako presioak gainditu egin ninduen, eta ez nintzen gustura aritu. Landu beharra daukat hori gehiago. Zaila da irabaztea, baina Iker Vicente gehiago estutu nahi nuen, eta, entrenamenduetan egindako lana aintzat hartuta, uste nuen bigarren postua lortzeko borrokatu nintekeela. Baina *Txikia*-k sekulako lana egin zuen", aitortu du.

Hamabi enbor ebaki behar izan zituzten: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta beste lau oinbiko, eta Iker Vicente (Otsagabia; 1977) izan zen lanak amaitzen lehenengoa. Vicentek 42 minutu eta 55 segundoan ebaki zituen enbor guztiak, eta bi minutu eta 24 segundoko aldea atera zion bigarren izan zen Julen Alberdi *Txikia IV.*-ari Euskal Herriko Txapelketan bosgarren txapela lortuta, Arriaren marka gainditu eta Aitzol Atutxarena berdindu du Vicentek, eta urrezko aroa bizi duela berretsi du. "Zezenaren pare dabil Vicente. Beste maila baten dago", esan du Ezpeletak.

Kirol-Herria txapelketa

Orain, Kirol Herria Txapelketa dauka begiz jota Ezpeletak, eta harako prestatuko da buru-belarri. Izan ere, kanporaketa dauka asteburuan Oikian (Zumaia). Julen Alberdiren, Arkaitz Etxebesteren eta Xabier Zalduaren kontra lehiatuko da, finalerako txartela eskuratzeko.

Gaurko iragarritako Gailuren kontzertua, abenduaren 12an

Teknikarien greba deitua zegoen gaurko, eta, horregatik, abenduaren 12ra atzeratu zuten *Gararock udazkenean* zikloaren barruan gaur Gailuk ematekoa zuen kontzertua. Eta greba bertan behera gelditu bada ere, kontzertua egun horretan izango dela berretsi dute. San Agustinen izango da, 22:00etan.

Luzaroan odola emateagatik, aitortza Aritz Larrañagari



Aritz Larrañaga, sariarekin.

Aritz Larrañagari aitortza egin diote Odol Emaileen Elkartekoek, 25 aldiz odola emateagatik. Hiru hilean behin egiten dituzte odol ateratzeak Mendaron, eta, 18 urte bete zituenez gero, ez du hutsik egin Larrañagak. Gurasoen arrastoa jarraitu duela dio, eta hala segituko duela aurreratu. "Etxekoak beti etorri dira, eta halaxe hasi ginen anaia eta biok 18 urte bete genituenean. Ez da ahalegin handirik egin behar, eta jende batek eskertu egingo du", esan du. Larrañagak Odol Emaileen Elkarteko boluntarioen lana goraipatu du.





Zaldibarko zabortegia, Eitzaga auzoan, gaur egun. GARAZI MENDIETA

Zaldibarko zabortegiaren hondoratzearen arrazoiak argitara atera dituzte

CEDEXek irailean aurkeztutako txostenaren arabera, asteon 'El Correo' egunkariak ezagutzera eman duena, diseinuan egindako aldaketek eta kontrol-neurrien gabeziek eragin zuzena izan zuten Eitzagako zabortegiaren hondoratzean

Ander Gomez

Zaldibarko zabortegia 2020ko otsailean hondoratu zenetik, gertatutakoa argitzeko hiru auzi judizial nagusi zabaldu dira: Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze langileen heriotzarekin lotutakoa, hirigintza-irregulartasunei buruzkoa eta ingurumenaren kontrako delituak ikertzen dituena.

Lehenengo auzia itxi zen jada. Hildako langileen familiek 2,75 milioi euroko kalte-ordaina jaso zuten, eta sei hilabeteko espetxe-zigorra onartu zuten zabortegiko arduradunek: Jose Ignacio Barinaga jabeak, Arrate Bilbao kudeatzaileak eta Juan Elosegui ingeniari-buruak.

Hirigintza-arloan, zabortegia baimendutako eremutik kanpo hedatu ote zen ikertu da. Arantxa Baigorri Zaldibarko alkate ohia eta Udaleko teknikariak daude auzi horretan. Duela bi aste, hilaren 13an, haien apelazio-errekurtsoak atzera bota eta ikertu gisa jarraitzen dutela berretsi zuen Bizkaiko Auzitegiak.

Ingurumenaren arloko auzia, berriz, zabortegiaren jardueran eta hondoratzean egon zitezkeen arau-hausteak argitzeko abiatu zen. Kasu horretan, Verter Recycling enpresako arduradunak, Eusko Jaurlaritzako hiru teknikari eta Geyser eta Lurtek enpresetako lau kide ikertzen ari dira.

CEDEXen txostena

Testuinguru horretan eskatu zion Durangoko epaitegiak azterketa teknikoa egitea CEDEXi, Espainiako Garraio Ministerioari atxikitako Herri Lanen Azterketa eta Esperimentaziorako Zentroari. Hala, zabortegiaren diseinua, eraikuntza eta funtzionamendua osotasunean aztertzeko ardura hartu zuten, baita hondoratzearen arrazoiak zehaztekoa ere.

Lehenengo txostena 2021ean aurkeztu zuten, eta iraileko azken honek aurreko azterketaren ondorioak berretsi eta defentsako perituen txostenak aztertzen ditu. *El Correo* egunkariak dokumentua eskuratu du, eta, haren arabera, zabortegiaren hasierako proiektuan egindako aldaketek eta kontrol-neurrien gabeziek eragin zuzena izan zuten hondoratzean.

Hasierako proiektuan egindako aldaketak, kausa nagusi

2007an, Verter Recyclingek LKS ingeniaritza-enpresak egindako proiektua aurkeztu zuen, eta Eusko Jaurlaritzak ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena eta ingurumen-baimen bateratua eman zizkion. Urtebetera, ordea, harremana eten eta Geyser enpresarekin hasi zen lanean; proiektu berria diseinatu zuen.

Aldaketa esanguratsuenetako bat hondakin-masa maldan behera ez irristatzeko erabiltzen diren geomintzen aukeraketan egin zuten. Hasierako proiektuak mintz zimurtsuak aurreikusten zituen, 33 graduko marruskadura-angelua zutenak. Zaldibarko zabortegia eraiki zen sakonuneak 15 graduko batez besteko inklinazioa zuen, eta, azkenean, mintz lisoak jarri zituzten, 7 eta 11 gradu arteko marruskadura-angeluekin.

Beste aldaketa esanguratsu bat euste-dikean egin zuten. LKSren proiektuak 100 metroko altuera aurreikusten zuen, baina Geyserrek egindako diseinu berrian 18 metrora jaitsi zuten. Horrekin batera, segurtasun-maila txikiagoa eskatu zuten.

Hondakin-pilaketen, estali gabeko guneen eta euriteen eragina

Zabortegiaren erabilera ere aurreikusitakoa baino handiagoa izan zen. 35 urterako lizentzia zuen arren, 2017tik 2019ra bitartean aurreikusitako hondakin kopuru osoaren erdia inguru jaso zuen.

Horrez gain, estali gabeko eremuak 60.000 metro koadrotik gora hartu zituen, baimendutako 10.000 metro koadroko muga nabarmen gaindituta. Estali gabeko hondakinen gainera eroritako urak zabortegiaren barruan infiltrazio handia eragin zuela jasotzen du txostenak; batik bat, 2019ko azaroko eurite handien ostean.

Kontrol-neurrien gabeziak

Zabortegiaren egonkortasuna kontrolatzeko neurrien gabezia ere aipatzen da. Lur-mugimenduak neurtzeko jarritako mugarriak 2018an zuten joera aldatu eta gorantz egiten hasi ziren. CEDEXen arabera, aldaketa hark lur-mugimendu ezohikoak adierazten zituen, baina ez zen behar bezala interpretatu edo aintzat hartu.

Bestalde, 2019ko maiatzean egonkortasun-azterketa bat egin zuen Lurtek enpresak, eta instalazioa egonkor zegoela ondorioztatu zuen. Verter Recyclingek 2020ko urtarrilean aurkeztu zien Jaurlaritzako teknikariei, zabortegia hondoratu baino hamasei egun lehenago.

Azterketan, kalkuluak egiteko erabilitako irristatze-azalen eredu informatikoan akatsak zeudela ikusi zuen CEDEXek. Horiek zuzenduta, zabortegia egoera kritikoan zegoela eta hondoratzeko arriskua handia zela ondorioztatu zuen.

Instrukzioa, bukatzear

Azaroaren 10eko ebazpen baten bidez, epaileak ikerketa-epea ez luzatzea erabaki zuen, auzia nahikoa aurreratuta dagoela iritzita. Datorren martxoan, txostena egin duten CEDEXeko perituek epailearen aurrean deklaratuko dute. Agerraldi horren ondoren, aldeek ondorioak aurkeztu beharko dituzte, eta ahozko epaiketa egitea eskatuko duten erabaki.

Mendebaldeko saihesbidearen lanek aurrera jarraitzen dute

Garazi Mendieta

Mendebaldeko saihesbidearen gaineko azterketek aurrera jarraitzen dute. Datorren astean, Lever Planificacion e Ingenieria enpresak kamerak jarriko ditu Kaltxangoko biribilgunean, ibilgailu astunen trafikoa aztertzeko. Hain zuzen, 07:00etatik 21:00etara grabatuko dute, bost edo sei astez. Horrez gain, matrikulak erregistratuko dituzte Kaltxangoko biribilguneko Areitio eta Zearkale adarretan eta Zubiaurre kalearen amaieran, ibilgailuen jatorria eta helmuga zehazteko.

Horrela, Kaltxangotik igarotzen diren kamioiak pasatu bakarrik egiten diren edo Ermuan geratzen diren egiaztatu ahal izango dute. Azterketak trafiko astunaren eragina eta hiriguneko kutsatzaileen emisioak ere neurtuko ditu. Amaitutakoan, enpresak emaitzak, ondorioak eta jarduteko gomendioak jasoko dituen txostena aurkeztuko du.

Obrak aurrera doaz

Saihesbidearen obrak azaroaren 16an hasi ziren. Aste honetan topografia- eta zuinketa-lanak egiten ari dira lur-eremuetan, eta datorren astean zuhaitzak moztu eta sastrakak garbitzeko lanak hastea aurreikusi dute. Udalak astero egiten du jarraipena, obraren arduradunekin, eta, abenduko lehenengo astean, datozen lanen kronograma zehatza jasotzea espero du, aurrerantzean egingo dituzten lanen plangintza ezagutarazteko.



Trafiko astuna herrigunean. ANDER GOMEZ



Ermuko Txirrindulari taldeko kideak, asteburuan, elkarrekin bazkaldu aurretik. E. GONZALEZ



Ibilbide osasuntsura batu ziren jubiletxeko kideak. PASIALEKU JUBILATUEN ETXEA

Bizikleta utzi, eta mahaiaren buelta ospatu dute denboraldi amaiera txirrindulariek

Ermuko Txirrindulari taldeko kideek 160.000 kilometro batu dituzte aurten

Estibalitz Gonzalez

Urtarril amaieran hasitako kirol denboraldiari azaro hasieran eman zioten akabera Ermuko Txirrindulari taldeko kideek, eta aurreko zapatuan ospatu zuten, lagun arteko bazkari baten bueltan, kontu kontari.

Santixau aurreko zapatutik abuztuaren azkenekora kenduta, asteburuero eta jaiegun guztietan antolatu zituzten irteerak Ermuko Txirrindulariek. 72 irteera izan zituzten; 7.118 kilometro osatu dituzte, eta ibilbide bakoitzeko, batez beste, 99 kilometro. Ehundik gorakoa izan zen parte hartutakoen kopurua, eta irteera bakoitzean bi ibilbide egin zituzten, zailtasun desberdinekoak, txirrindulari bakoitzak bere ahalmenen arabera aukeratutakoa. Guztiek osatutako kilometro kopurua batuta, ia 160.000 kilometrora iritsi ziren.

Denboraldi hasieran ibilbide leunak eta kilometro kopuru gutxiagokoak egiten dituzte, 80-90 artekoak; txirrindulariak trebatu eta indartu ahala, etapa luzeagoak etortzen dira, gogorragoak eta menditsuagoak, 100 kilometrotik gorakoak.

Ekainean lasterketa zikloturistaren baten parte hartzea ere klasiko bihurtu da. Aurten, Benidormeko Aitana Tour-ean eta Covadongako lakuetako desafioan izan dira. *La larga* deitzen dioten beste bizikleta erronka bat txirrindularion kuttunetako bat da, Ermuan irtenda eta 150 kilometroko ibilbidea egitea helburu. Burgosko Trespaderne herrian izan zuen helmuga; dutxa hartu eta arropa aldatzeko lekua lotuta izan zuten, baita bazkaltzekoa ere. Autobusez egin zuten bueltako bidaia, eta bizikletak bertan ekarri zituzten, maletategian.

Zapatuan berriro elkartu ziren; txirringa, maillot eta kulot barik. Txipiroi, entrekot eta bakailao artean anekdota ugari zein hurrengo denboraldirako proposamenak ere entzun ziren.



La larga erronkan, aurten. RUBEN PAZOS

Robotikaren munduan lehen urratsak egiteko tailerrak izango dira

G.M.

Ermuko Udaleko Ekonomia Sustatzeko Alorrak gaur itxiko du 6 eta 13 urte bitarteko haur eta gazteentzako robotika tailerretan izena emateko epea. Hiru saio antolatu dituzte, abenduaren 28an, 29an eta 30ean egiteko, STEAM gaitasunetan (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematika) lehen urratsak egiteko helburuarekin. Ekimenaren bidez, arlo horietako oinarrizko ezagutzetara hurbiltzeko aukera izango dute parte-hartzaileek, robotikaren bitartez.

Tailer bakoitzean gehienez hamabi lagunek parte hartu ahal izango dute. Izena eman nahi dutenek gaur izango dute azken eguna. Horretarako, bi aukera izango dituzte: aurrez aurre, Abiapuntu bulegoan, 08:30etik 14:30era; edo online, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, eguneko 24 orduetan.

Onartutako parte-hartzaileek 31,40 euroko tasa ordaindu beharko dute, 32. Ordenantza Fiskalak ezarritakoaren arabera. Eskatutako plaza kopuruak eskainitakoa gainditzen badu, zozketa publikoa egingo dute abenduaren 2an, parte-hartzaileak hautatzeko. Behin betiko onartuen zerrenda, berriz, abenduaren 10ean argitaratuko dute.

Giro ederra eta parte-hartze handia Nagusien Asteko ekitaldietan

Garazi Mendieta

Ermuko Nagusien Astea jardueraz, musikaz eta elkargunez betetako egunek osatu dute aurten ere. Azaroaren 16tik 19ra bitartean, jubilatuek hainbat proposamenetan parte hartzeko eta elkarrekin gozatzeko aukera izan dute, giro ederrean.

Astean zehar askotariko jarduerak egin dituzte: dantza- eta gimnasia-saioak, petanka-txapelketa, eskulanen erakusketa, kantu-taldearen kalejira eta bestelako ekintzak. Proposamen horiek guztiek parte-hartzea, harremanak eta elkarbizitza sustatzeko balio izan dute, eta adin askotariko herritarrak elkartu dira.

300 lagun batu dira azken bazkarian

Azaroaren 19an eman zioten amaiera asteari, egitarau berezi batekin. Bi ibilbide egin zituzten, oinez, bidean hainbat proba eta sorpresa gaindituz, eta, ondoren, ginkana antolatu zuten Orbe Kardinala plazan. Amaitzeko, herri-bazkaria egin zuten Merkatu Plazan, eta 300 lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan.

Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete astea posible egin duten parte-hartzaile eta laguntzaileei, eta, beste behin, agerian geratu da adinekoen arteko topaguneak eta elkarrekin gozatzeko aukerak sortzearen garrantzia.

Merioaren ibilbidea eta familientzako txangoa antolatu ditu Artarraik

Bihar, zapatua, Merioaren Ibilbidea egingo du Artarraik; Durango, Abadiño, Elorrio eta Berriz zeharkatu, eta toki historikoetan geldialdiak egingo dituzte. Domekan, berriz, familientzako ekintza berezia prestatu dute: Zelai baserrira joango dira, aizkora, harri-jasotzea eta ogia egiten ikasteko eta animaliak eta inguruak bisitatzeko.

Lehenengo plaza-dantza saioa egingo dute bihar, ermitan

Plaza-dantza saioen lehena egingo dute bihar, azaroak 28. San Martin eta Santa Zezilia egunak dantzan pasatu dituzten arren, oraindik dantzarako gogoz daudela diote antolatzaileek, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte batzera. Merkatu Plazan beharrean, San Antonioko ermitan elkartuko dira, 12:00etan –Izelaieta kalea 19–.

50 ARTARRAI
MENDI TALDEA · ERMUA
Ekinez ekin bidean darrai



Aurtengo irabazleak, Antzokiko taula gainean. UDALA

Sei bideo saritu dituzte Ermuko ikasleen Beldur Barik ikus-entzunezko lehiaketan

Ehunka lagun bildu ziren, martitzenean, Ermua Antzokiko sari-banaketan

G. Mendieta

Ermuko ikastetxeetako ikasleen sormena eta berdintasunarekiko konpromisoa izan ziren martitzen arratsaldean Ermua Antzokian egindako 2026ko Beldur Barik lehiaketako sari-banaketa ekitaldiko protagonistak. Udaleko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako ekimenak berdintasunean, errespetuan eta askatasunean oinarritutako jarrerak sustatzea eta indarkeria matxista gaitzestea du helburu. Ehunka ikasle eta senide bertaratu ziren jaialdira. Mandarinas al Sol taldeak aurkeztu zuen ekitaldia, eta hiru abesti jo zituen.

Lehen Hezkuntzako lau lan saritu

Lehen kategorian, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako ikasleei zuzenduta-koan, 100 euroko lau sari banatu zituzten, tokiko merkataritzan erabiltzeko bonuetan. Anaitasuna Ikastolako beheko eraikineko 6.A eta 6.B mailetakoek *Zergatik demostratu behar dute emakumeek gehiago, tratu berdina jasotzeko?* lana aurkeztu zuten, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta horiei aurre egiteko beharra lantzen dituena.

Eskolabarri Ikastetxeko 5. mailakoek, berriz, *Hobeto elkarrekin* bideoarekin jaso zuten saria, errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako harremanak aldarrikatzeagatik. Anaitasuna Ikastolako goiko eraikineko 5.B mailakoek *Ez dago nesken edo mutilen gauzarik* aurkeztu zuten, genero-estereotipoak zalantzan jartzen dituen lana, eta San Lorenzo Ikastetxeko 6.A mailakoek, *Tratu ona guztiona*, elkartasuna eta indarkeria matxistaren aurrean erantzun kolektiboa sustatzen dituena.

Maskulinitate-eredu berriak eta indarkeriarik gabeko bizitzak

Bigarren kategorian, 300 euroko bi sari banatu zituzten. Ermua BHIko *Gure artean* bideoak maskulinitate-eredu berriak sustatzen ditu; kultura matxistaren eta indarkeria matxistaren aurrean jarrera kritikoa duten mutilak erakusten ditu. San Pelayo Ikastetxeko *No soy tuya* lanak neska gazteek egunerokoan jasaten dituzten indarkeria matxistaren adierazpenak ikusarazten ditu.

Horrela, Beldur Barik lehiaketak, ikus-entzunezko sorkuntzaren bidez, hausnarketa hori sustatu eta sexismoaren aurkako jarrera aktiboak eta konprometituak bultzatzen ditu.

Ermuko eta Mallabiko gazteen ideiak sarituko ditu Gaztekimen lehiaketak

A. Gomez

Gaztekimen lehiaketa 18 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta euren udalerria edo ingurua hobetzeko ideia berritzaileak sustatzea du helburu.

Ermua-Mallabia OLHUIko ikasleek emaitza onak lortu dituzte aurreko aldietan: 2024an, lehen saria eskuratu zuten, *NextGen Bekak* proiektuarekin; 2025ean, berriz, lehen saria, *Gazteentzako hezkuntza finantzarioa* lanarekin, eta aurkezpen onenaren saria, *Parte-hartze digitalerako plataforma* proiektuarekin.

Azaroaren 30era arte eman daiteke izena, eta proiektuak abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira. Finalistek otsailean aurkeztuko dituzte lanak, Durangoko San Agustin aretoan. 2.400 euro banatuko dira saritan.



Ermua-Mallabia institutuko ikasleak, 2024an, lehen saria jasotzen. E.M.

Ikasgela eta jolasgune bihurtuko dira kaleak Hiri Hezitzaileen Egunean

A.G.

Duela hamar urte sortu zen Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Eguna, hezkuntza hiri edo herri bateko bizitzaren funtsezko ardatza dela aldarrikatzeko eta ikaskuntza eskolatik harago sustatzeko helburuarekin. Hala, datorren astelehenean, azaroak 30, Ermuko erdigunea ikaskuntzaren eta gizarte-eraldaketaren "laborategi" bihurtuko da berriro ere.

Arratsaldez, 17:00etatik 19:30era bitartean, denetariko jarduerak izango dituzte 2 eta 12 urte bitarteko umeek: zirku tailerra, eraikuntza-gunea eta sukaldaritza txokoa... dena, institutuko ikasleen zaintzapean. Ekintza guztiak doakoak izango dira, plazan egingo dira –euria eginez gero, Merkatu plazan–, eta herriko ume guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.



Umeak, eraikuntza gunean, iaz. D. VIDAL

Bi ekimen antolatu dituzte Euskararen Eguna ospatzeko

G. Mendieta

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, liburu-aurkezpena egingo dute Ermuko euskaltegian. Andrea Bella Garcia Uruguaiko euskalduna bertan izango da, eta *Euskara eta biok* liburua aurkeztuko du. Euskal Birusak antolatu du hitzordua, Kaltxango AEK euskaltegiarekin elkarlanean.

Euskararekiko ibilbidea, marrazki bitartez

Euskara eta biok Andrea Bellak sortutako bidaia-koaderno ilustratua da, eta egilearen euskararekiko ibilbidea jasotzen du. Irudigilea da Bella, eta haren esperientzia pertsonala marrazki-koaderno baten itxura duen formatu berezian bildu du, hark egindako irudiak eta Ainize Madariaga Muthular senpertarrak idatzitako testuak uztartuz.

Bellak bereziki nabarmendu nahi izan du Madariagaren ekarpena, hark josi baititu hitzak eta marrazkiak. Argitalpen-egitasmo pertsonala da, eta egilea buru-belarri ari da liburua Euskal Herrian zabaltzeko ahaleginean. Liburua egileak berak sortutako marrazkiz beteta dago, hainbat estilotan landuta daudenak. Hala, irakurtzeko ez ezik, bisualki esploratzeko gonbita ere egin nahi du lanak, testuak eta irudiak uztartzen dituen bitartean.



Andrea Bellak aurkeztuko du. A.B.G

Euskararen erabilera sustatzeko kartelak

Bestalde, Taupa mugimenduak kartelak itsasteko ekintza antolatu du, euskararen erabileraren inguruko kontzientzia piztu eta herritarrak aktibatzeko. Ekimenaren bidez, euskararen erabilera sustatzeko mezuak zabaldu nahi dituzte herriz herri, hizkuntzaren eguneroko presentzia eta erabileraren garrantzia aldarrikatzeko. Ekintza 18:30ean egingo dute, Ermuan, Euskal Herri osora zabaldu nahi duten ekimenaren barruan.

"Pozak eta emozioak negarra ekarri zidan; esker ona eta itzelezko ilusioa sentitu nuen"

EVA ZUBIZARRETA MUSIKA IRAKASLEA

Estibalitz Gonzalez

Luzaroko urteetan, Ermuko Alboka musika eskola sortu zenetik eta haren aurretik ere, lehenengo eskusoinua eta gerora trikitia erakusten ibilitakoa da Eva Zubizarreta. Ostiralean, Ermua Antzokian emandako Santa Zezilia kontzertu amaieran, merezitako aitortza jaso zuen, dantzaz eta musikaz osatua; nola bestela.

Zer da zuretzat musika?

Gaztetatik nago musikara lotua, eta oso une politak eman dizkit, baina lana eta konstantzia eskatzen du. Melodia batzuk zailak dira eta entsegu eta dedikazio handia eskatzen dute.

Akordeoia ala trikitia, zein musika-tresna nahiago?

Trikitia eramatea errazagoa da, kalejira bat egin dezakezu; eskusoinua eserita jo behar duzu, askoz gehiago pisatzen duelako. Trikia abiadura da, hatzak arin mugitu behar dituzu. Ondo pasatzeko daukat, nolabaiteko festa usaina du... Kalera ateratzen garenean, ezin dugunez partiturarik eraman, argazki bat ateratzen diot; jo baino lehen, begirada bat bota lehenengo sarrerei, eta, melodia dakidanez, aurrera! Egia esateko, bi instrumentuak gustatzen zaizkit, bakoitzaren esparruan eta bere errepertorioarekin.

Ostiraleko omenaldian zein emozio mugitu zitzaizun?

Negarra; pozak eta emozioak negarra ekarri zidan. Esker ona eta itzelezko ilusioa sentitu nuen: han zirenak, lankide eta ikasle



Eva Zubizarreta, soinua jotzen. E.G.

ohiak, urruti egon eta bideo haiek bidali zizkidatenak... Horrek guztiorrek dakarrena: hainbeste jende antolatzea, entseguak nire ezkutuan egin beharra... Oso eskertuta nago. Egunak joan dira eta oraindik akordura etortzen zait zer esan zidaten, nortzuk etorri ziren...

Zer jaso duzu jendearengandik?

Harritu eta ilusionatu egin ninduen hainbeste jende etortzeak: lagunak, familia, ikaskide akordeonistak, ikasle ohiak... Duela 10 urtetik ikusi bako pertsonak ikusi nituen. Amaieran eszenatokira igo ziren, eta oso hunkigarria izan zen.

Alboka musika eskolaren sortzaileetako bat izan zinen...

Bai; Maria Elena Iturriagagoitiak, Silvia Izarrak eta hirurok sortu genuen. Nork bere etxean ematen zituen eskolak, eta elkartzea erabaki genuen. Polita izan zen. Gaur egun ere musika eskolara joaten naiz, eta hainbat festatan eta kalejiratan jotzen jarraitzen dut. Eta horretan segitzekotan naiz!



MAIALEN AGIRREGOMEZKORTA
IKASLEA

"Hamar urte eman nituen harekin, unibertsitatera joan arte. Musikaz gain, guregan sinisten irakatsi zigun. Merezi zuen omenaldi polit hori, eta hunkigarria izan zen berriro elkartzea".



ANDERE ASTIGARRAGA
LANKIDEA

"Duela 20 urte hasi nintzen Evarekin lanean. Urteak dira jubilatu zela, baina ezer aldatu izan ez balitz bezala da: trikiti taldean jarraitu du jai guztietan parte hartzen, eta egindako omenaldia ere ez da nahikoa eman digun laguntza guztia eskertzeko".



Eva Zubizarreta, ikasle eta lankide izan dituen mallabitarrez eta ermuarrez inguratuta, Santa Zeziliako kontzertuan. ANDER GOMEZ

Emakumeen Lau eta Erdiko Txapelketako finalerdiak, erabakita

Garazi Mendieta

Mallabiko pilotalekuak Emakumeen Lau eta Erdiko Txapelketako final-laurdenetako jardunaldia hartu zuen joan den domekan, azaroak 22. Lau partida jokatu zituzten, maila handiko pilotariekin eta giro ederrean. Amaia Aldai eta Enara Gaminde bizkaitarrek ez zuten hutsik egin, eta finalerdietarako sailkatu ziren.

Aldaik ireki zuen jardunaldia, eta 22-11 irabazi zion Arrate Bergarari. Dimoztarrak hasiera bikaina egin zuen; 11-1 aurreratu zen, eta, aurkariak markagailua estutzea lortu bazuen ere, garaipena ziurtatu zuen. Gamindek ere aurrera egin zuen, Laia Salsamendi 22-14 mendean hartuta. Partida lehiatua jokatu zuten biek, baina egungo txapeldunak nagusitasuna erakutsi zuen amaieran. Eguneko neurketarik estuena Olatz Arrizabalagak eta Aizane Ibarrolak jokatu zuten; azken horrek 21-22 irabazi zuen, azken tantoan finalerdietarako txartela eskuratuta. Goiuri Zabaletak osatu zuen laukotea, Maddalen Etxegarai 22-11 garaituta.

Finalerdiak domekan jokatuko dituzte, azaroak 29, Zeanurin. Aldai eta Gaminde, batetik, eta Ibarrola eta Zabaleta, bestetik, finalerako txartelaren bila arituko dira. Finala abenduaren 13an izango da, Mungian.



Final-laurdenak, Mallabian. E.M.C.

Ekintza berezia gehituko zaio Euskararen Eguneko ohiko brindisari

Ander Gomez

Aurtengo abenduaren 3an euskararekiko atxikimendua adierazteko beste ekintza bat proposatu dute Berbalagunek. Taupak diseinatutako eta ikusleen arreta bereganatzeko, zentzu bikoitza duten kartelak zabalduko dituzte herrian zehar.

Hiru lelo dituzte: *Noiztik ez duzu egiten?; Zuk uste baino jende gehiagok egin nahi du zurekin;* eta *Guri toki guztietan egitea gustatzen zaigu*.

Herritarrek Kultur Etxean eskuratu ditzakete, argazkia atera eta 663 07 04 92 zenbakira bidali. Jasotako irudiekin argazki-muntaia zabalduko dute sare sozialetan, eta Euskararen Aldeko Brindisean mural erraldoia osatuko dute.



Mallabitar gaztetxoenak ere batu ziren iazko brindisera. A. GOMEZ

Mintzodromoa, Olentzero eta Mari Domingi eta bestelakoak Euskararen Egunean

Abenduaren 3an izango dira Euskararen Eguneko ospakizunak eta aldarrikapenak

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Abenduaren 3an izango den Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan, hainbat ekimen antolatu dituzte herriko eragileek eta elkarteek, ospakizunerako, euskaraz trebatzeko eta aldarrikapenak egiteko.



Euskaraz e(ra)gin! da aurtengo egunaren leloa. TAUPA MUGIMENDUA

Berbazaleen Topaketa

Hasteko, abenduaren 1ean, martitzena, Berbazaleen Topaketa egingo dute. "Badihardugu Euskara Elkartea dabil Soraluzeko euskararen azterlana egiten, eta Pil-pileanetik ari gara euskararen historia soziala, herrikoa, jasotzen. Berbazaleen Topaketara gonbidatuko ditugu herriko hizkuntzarekin zaletasuna duten herritarrak, eta Soraluzeko berbak eta esaerak izango dira hizketagai", esplikatu du Arianne Unamunok, Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteko kideak. Martitzenean elkartuko dira, KLB8ko lokalean, 18:00etan.

Mintzodromoa eta ipuina

Euskararen Nazioarteko Egunari berari dagokionez –abenduak 3–, goizean, eskolan eta institutuan, jolasak, filmak, kantuak, murala eta tailerrak egingo dituzte.

Arratsaldean, berriz, Mintzodromoa egingo dute. Bestela esanda, euskaraz ikasten ari direnak eta euskaraz dakitenak elkarrekin berbetan jarriko dituzte AEK-k eta Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak. 15:00etan izango da, frontoi zaharrean. Bestetik, 18:00etan, ipuina kontatuko dute KLB8ko lokalean, *Olentzeroren eta Mari Domingiren Amalurraren opariak* ipuina. Tere Guenetxeak, Maite Quintanillak eta Egoitz Unamunok idatzi zuten ipuina 2013an, eta Pablo Galarragak ilustratu.

Gabonetako txabola

Azkenik, Euskararen Nazioarteko Eguna eta Olentzeroren eta Mari Domingiren Plaza Barriko etxolaren irekiera ekitaldi berean uztartuko dituzte.

18:30ean, Plaza Barrixan elkartu eta, Taupa Euskaltzaleen Mugimenduak euskararen alde ateratako manifestua irakurriko dute AROA taldekoek, eta datozen urteetan euskararen erabilera hazi dadin baldintza sozialen aldarrikapena egingo dute. Horren ondoren, Olentzeroren eta Mari Domingiren txabola irekitzera etorriko dira Galtzagorriak trikitilariek lagunduta. Eta euskal kantak eta Gabonetako Soraluzeko kantua abestuko dute, *Negua iritsi da*. Segidan, Plaentxi Eskolan Eneko Beretxinaga bertsolariarekin *Gu ere bertsotan* programan parte hartzen ari diren LH5eko eta LH6ko ikasleek bertsoak kantatuko dituzte, eta azkenik, txokolatea partituko dute Atxolin Guraso Elkartearen eskutik.

Euskararen Eguna 1949tik

Joan den mendeko 20ko hamarkadan ospatu zituzten Euskararen Egunak lehen aldiz. Hala egin zuten 1927an Arrasaten, 1928an Zumarragan eta 1930ean, Iruñean, besteak beste. Gerraren ondoren, erbestean, 1949an, Eusko Ikaskuntzaren Ameriketako Institutuak, Argentinako hainbat euskal etxerekin batera, Euskararen Egunari berriro ekin eta nazioarteko ikuspegiz landu zuten. Abenduaren 3an egin zuten, Nafarroako zaindari den San Frantzisko Xabierkoaren eguna delako. Xabierko San Frantzisko Txinan hil zen -1552an-, eta kontatu zutenez, hilzorian zegoela, bere azken hitzak euskaraz esan zituen, santu nafarraren ama-hizkuntzan. 1995ean, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak bat eginik, Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu egin zuten.

"Disfrutatu, beti egiten duguna egin, eta izango ditugu gure aukerak"

IÑAKI RECIO PORTUGALETE FUTBOL TALDEKO JOKALARIA



Iñaki Recio Irusta, epaileen erdian, aste honetan, kapitain. PORTUGALETE FT

U.M.Z. SORALUZE

Joan den astean Irungo Real Unioni irabazi ondoren, datorren eguaztenean, Portugaletek Coruñako Deportivo taldearen kontra jokatuko du Errege Kopako partidua. Portugaleten jokatuko dute, 19:00etan hasiko da partidua, eta jokalarien artean Iñaki Recio soraluzetarra ere izango da. Errege Kopan jokatuko duen laugarren partidua izango da soraluzetarrarentzat.

Zelan zaude? Gogotsu?

Gogoz, bai. Ohituta gaude. Partidu berezia da, baina iaz jokatu genituen bi, aurten beste bat… Esperientzia bizi izan dugu, eta, gutxi gorabehera, badakit zer aurkituko dudan. Beraz, gogotsu bai, eta urduri, baina gutxi.

Badaude partidurako sarrerak?

Gaur jarri dituzte salgai [eguaztena], bazkideentzat 15 euroan eta gainerakoentzat 35 euroan. Gureak, normalean, merkeagoak dira, baina, Kopa izanda, garestiago daude; dena den, Lehen Mailako talde bat ikusteko, ondo dago.

Herritik ere joango da jendea, ala?

Bai. Zerrenda eginda daukat. Hamabost batek esan didate ja, eta oraindik besteren bat apuntatuko dela uste dut. Hogei sarrera inguru eskatu beharko ditudala pentsatzen dut.

Kapitain-besokoa estreinatu duzu; Deporren kontra ere zeu izango zara kapitain?

Lau kapitain gara. Normalean, kapitain dira taldean denbora gehien daramatzatenak. Ni naiz hirugarrena. Beste biek aurreko astean ez zuten jokatu, eta niri tokatu zitzaidan. Baina atezainak, normalean, beti jokatzen du, eta hura da lehen kapitaina; beraz, suposatzen dut hark eramango duela besokoa Deporren kontra.

Kapitaina bazina, zure taldekideendako mezu nagusia litzateke…

Kapitain izan ala ez, berdina esango nuke: disfrutatzeko, beti egiten duguna egiteko, beste partidu bat da, eta izango ditugula gure aukerak, geure buruarengan konfiantza izateko, eta animoarekin, aurrera!

Futbolean ez dago ezer itxita…

Hori da. Iaz, Valladolid kanporatu genuen eta Alavesen kontra jokatu genuen. 80. minutura arte 1-0 joan ginen eta izan genituen berdintzeko gure aukerak. Futbolean zerbaitengatik daude mailak eta aldeak mailen artean, baina beti daude aukerak; izaten dira espero gabeko emaitzak batzuetan.

Esan barik zein, baina estrategia bereziren bat lantzen ari zarete?

Asteburu honetako partiduarekin gabiltza. Zapatuan daukagu, Racing B-ren kontra, eta larunbatetik aurrera hasiko gara prestatzen Deporren kontrako partidua.

Zeu Real Unionen egondakoa izanda; joan den asteko partidua ere berezia izango zen, ala?

Bai. Orain dela 7 urte-edo egon nintzen han. Utilleroak, entrenatzaileren bat… lehengoak dira, eta niretzat berezia izan zen.

Portugaleten zaude orain, baina Soran koordinatzaile zara; zehazki, zer egiten duzu?

Ni futbolaren friki hutsa naiz. Nire lana da, baina nire zaletasuna ere futbola da. Aurten, aukera neukan arratsaldeetan etortzeko, goizetan entrenatzen garelako. Eskaini zidaten aste barruan etortzea entrenatzera kadeteekin eta gazteekin, eta baietz esan nuen. Edozelan ere, jokalariekin egon beharrean, gehiago hitz egiten dut entrenatzaileekin, zelako entrenamenduak egin…

26 urterekin, oraindik futbolean segitzekotan ibiliko zarela pentsatzen dut…

Oraingoz, gustura nago, eta, ahal dudan bitartean, nire asmoa da luzatzea.

Abenduaren 22an 50 otarre zozketatuko dituzte Itxaropenako bazkideen artean

Abenduan kobratuko dituzte urteko kuotak eta loteriaren 5 euroak

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

"Oso-oso ondo" bukatu zuten 80 urtetik gorakoen omenaldia Itxaropena Erretiratuen Elkartean joan den barikuan. Avelino Ramos eta Antonia Fernandez omenduek pozik eta hunkituta jaso zituzten opariak, eta, ospakizunean lagun izan zituzten gainerako bazkaltiarrek bezala, kantuan eta dantzan borobildu zuten jatordua.



Lagun kuadrilla bat topa egiten, barikuko omenaldian. U.M.Z.

Karta-jokoa eta otarreak

Itxaropenako hurrengo hitzordua Gabonetako karta-joko txapelketa izango da, abenduaren 18an, baina parte hartzeko izen-ematea datorren astean itxiko dute, abenduaren 3an. Ohartarazi dutenez, gutxienez lau bikote behar dira modalitate bakoitzean txapelketa egiteko, eta, oraingoz, ez dago nahikoa izen-emate ez briskan, ez musean, ezta tutean ere.

Bestalde, Gabonetan ohi dutenez, jan-edan gozoz osatutako 50 otarre zozketatuko dituzte bazkideen artean, abenduaren 22an. Egun berean, txistor-pintxoak banatuko dituzte bertaratutakoen artean.

Urteko kuota eta loteria

Azkenik, jakinarazi dute abenduan kobratuko dituztela urteko kuota –12 euro– eta Gabonetako loteria –5 euro–; helbideratutako kontu korronteetatik kobratuko dituzte 17 euroak.



Antonia Fernandez, alabarekin. U.M.Z.



Avelino Ramos, alabarekin. U.M.Z.

Lau peoi kontratatzeko lan-deialdia egin du Udalak

Soraluzeko Udalak lau peoi lanaldi osoan hiru hilabetez kontratatzeko deialdia egin du. Askotariko lanak egiteko peoiak izango dira; hiri-lanetako jardueretarako, zehazki. Baldintzak betetzen dituztenek KLB8ko Enplegu Zentroan, Lanbideren Elgoibarko bulegoan edo online eman dezakete izena, azaroaren 30a baino lehen.

Haurreskolan izena emateko epea zabalik, urtarrilean hasteko

Abenduaren 8ra arte dago zabalik Soraluzeko Haurreskolan izena emateko epea. 2025ean eta 2026an jaiotako umeendako deialdia da, Haurreskolan urtarrilean hasteko. Izen-ematea egin zein informazio gehiago eskura daiteke *www.haurreskolak.eus* atarian, 943 75 13 32 zenbakian edo Haurreskolan. Gaur egun, bost umerendako lekua dute.

Blues jaialdiak "koxka bat egin du gora" eta jendetza ekarri du Soraluzera

Jaialdiak musikazale asko erakarri ditu Euskal Herri osotik eta Estatutik

Egoitz Unamuno Loidi SORALUZE

Blues Hotsak-en aurtengo edizioa berezia izan da. Antolaketan jardun duen Ubane Uzinen ustez, "jaialdiak koxka bat egin du gora. Aurten musikazale gehiago etorri da herrira. Jendea etorri da gure bailarako eta inguruko bailaretako herrietatik, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako beste herri batzuetatik, baita Valentziatik eta Burgostik ere, besteak beste. Kanpotik etorritako musikazale asko asteburu-pasa etorri dira. Batzuek furgonetetan lo egin dute eta beste askok inguruko herrietako hoteletan eta landetxeetan hartu dute ostatu". Horregatik guztiagatik, Uzinek eta Joxe Felix Azkarate *Xarrak* sumatu dute "jaialdiak leku" bat egin duela "Estatuko zirkuituan". Arrakastaren zergatiaz galdetuta, "maila handiko taldeak", egitarau "eklektikoa" eta eragileekiko lankidetza aipatu dituzte.



Roberts Adams abeslariaren ahotsak publikoa txunditu zuen Antzokian. G. AZKARATE

Diru-bilketa solidarioa

Domeka eguerdian, herritar talde batek jaialdiarekin lankidetzan, Palestinarako dirua batzeko ekimena egin zuen Plaza Zaharrean. Bertan, edariak eta 400 errazio-arroz baino gehiago saldu zituzten, eta, horri esker, 1.500 euro bideratu dituzte Palestinara.



La Perra Blanco taldeak zuzeneko bizia eskaini zuen Plaza Zaharrean. EGOITZ UNAMUNO



Barrence Whtitfield estatubatuarrak zuzeneko ikusgarria eskaini zuen. E.U.



Hamarnaka familia batu ziren iaz Santa Katalinan, Izan Tribu egitasmoaren lehen ekimenean. LAGATAKOA

Gaur hasi eta abenduaren 20an amaituko da Euskeraz Bagera zikloaren seigarren aldia

Adin askotariko herritarrei zuzendutako hemezortzi ekintza izango dira, orotara

Izaro Aulestiarte

Debara ere iritsiko da Euskararen Nazioarteko Eguneko ospakizunen eta aldarrikapenen oihartzuna, baina euskara ardatz duten ekitaldiak ez dira egun bakarrera –abenduak 3– mugatuko. Seigarren urtez jarraian, Euskeraz Bagera egitasmoa antolatu dute herriko hainbat taldek elkarlanean, eta haurrei, gazteei eta helduei zuzendutako hemezortzi ekitaldiz osatutako egitaraua ondu dute.

Gaur, azaroak 27, egingo dituzte lehenbiziko jarduerak, arratsalde-iluntze partean, Gaztetxean nahiz Kultur Elkartean, eta datozen lau asteotan, abenduaren 20ra arte, aisialdi eskaintza betea izango dute aukeran herritarrek: txotxongilo tailerra, familientzako irteera, umorezko bakarrizketa, hitzaldia, musika emanaldiak, zinema nahiz dokumental proiekzioak, ipuin kontaketak, mus txapelketa, ikuskizunak... izango dira tartean.

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, hitzordu gehienak doakoak izango dira eta ez da beharrezkoa izango izena aldez aurretik ematea, baina badira salbuespen batzuk; egitarau orokorrean eta ohiko bideetatik ere iragarriko dituzte xehetasunak.

Zuhatza Euskaltzaleon Mugimenduak, Debako Udalak eta hainbat norbanakok ez ezik, ondoko eragileek ere bat egin dute aurtengo zikloarekin: Debako Kultur Elkartea, Gazte Asanblada, Zubi Guraso Elkartea, Altxa Burua Deba-Itziar, Arrano Elkartea, Debako Kontalariak, Debadezine eta Kalean Kantuz.

Elkarlana lanabes harturik

Duela bost urte, 2021ean, hasi zuen bidea Euskeraz Bagera egitasmoak, aisialdiaz euskaraz gozatu ahal izateko eta herritarron artean harreman-sare berriak eraiki ahal izateko erronkarekin. Eta, sustatzaileek gogorarazi dutenez, hasierako ezaugarriei eta helburuei eutsiko die seigarren aldia duen honetan ere.

"Urtero izaten dira aldaketak egitarauan; egun eta ekintza kopurua, adibidez, aldakorra da, ez da finkoa, baina ekimenaren oinarria hasierako bera da: euskaraz bagarela aldarrikatzea eta ospatzea. Zikloan parte hartzeko eta proposamenak egiteko gonbidapena egiten diegu aurrez eragileei, eta, ondoren, jasotako ekarpenekin osatzen dugu programazioa, elkarlanean. Euskararen Egunaren bueltan gure herrian euskaraz eta euskararen alde egiten diren ekitaldi guztiak barnebiltzen ditu, hortaz, Euskeraz Bagerak", laburbildu dute.

Egitaraua

Hona hemen tokiko hamaika eragilek eta norbanakok datozen asteotara begira elkarlanean ondu duten egitarau herrikoia:

Azaroak 27, ostirala
- **17:00** Umeentzako ipuin kontaketa, txotxongilo tailerra eta txokolate-jana, Gaztetxean. Gazte Asanbladaren eskutik.
- **20:00** Manex Astigarragaren *Margolari* umorezko ikuskizuna, Kultur Elkartean. Sarrera: 5 euro, *labur.eus/margolarideba* estekan.

Azaroak 28, larunbata
- **10:30** Izan Tribu. Familian euskaraz gozatu dezagun! Artzabalera irteera, Foruen plazatik abiatuta.
- **12:30** Iturrian korua, Oskarbi tabernatik abiatuta.

Abenduak 2, asteazkena
- **16:30-19:00** Errigoraren saskien banaketa, Kultur Elkartean.
- **19:00** *Sustraitik espaziora,* Errigoraren dokumentalaren emanaldia, Kultur Elkartean.

Abenduak 3, osteguna. Euskararen Nazioarteko Eguna
- **18:00** *Euskaraz e(ra)gin* kartelen jartzea, udaletxetik abiatuta.
- **19:30** Kalean Kantuz eta Baratxuri Zopa, kalez kale.

Abenduak 6, igandea
- **19:00** Zinema: *Faisanen irla,* Kultur Elkartean. Debadezineren ekimenez.

Abenduak 10, osteguna
- **19:30** Herriko musikarien kontzertua, Kultur Elkartean.

Abenduak 11, ostirala
- **20:00** *Patatekin* (Barrexerka) umorezko antzerkia, Kultur Elkartean. Sarrera: 10 euro –Zuhatzako bazkideek: 8 euro–, *labur.eus/patatekindeba* estekan.

Abenduak 12, larunbata
- **16:30** Umeentzako zinema: *Chirps, Honey Hillseko ikertzailea,* Kultur Elkartean.

Abenduak 13, igandea
- **17:30** Umeentzako ipuin kontaketa saioa, Ispiluen gelan.

Abenduak 15, asteartea
- **18:00** Hitzaldia: *Familiak digitalki ahalduntzen* (Edurne Emazabel), Kultur Elkartean. Altxa Buruaren ekimenez.

Abenduak 17, osteguna
- **19:30** KulturEkin kontzertua: Aitor Gorosabel eta Xabi Bastida, Kultur Elkartean. Sarrera: 8 euro. Salmenta, abenduaren 1ean, 17:00etan.

Abenduak 18, ostirala
- **20:00** Kontzertua: *Animalia* (Habia), Ispiluen gelan.

Abenduak 19, larunbata
- **16:00** Mus Txapelketa, Arrano elkartean.

Abenduak 20, igandea
- **17:30** Umeentzako antzerkia: *Etxerik txikiena* (Yarleku), Ispiluen gelan.

Itsas hondakinak bilduko dituzte bihar, Itsas Zaintza Sareak deituta

I.A.

Itsas Zaintza Sarearen ekimenez, itsas hondakinen bilketak egingo dituzte bihar, hilak 28, Gipuzkoako zazpi tokitan; tartean, Deban. Jarduera goizean egingo dute leku guztietan, 11:00etatik 13:00etara, eta helburu argia duela gogorarazi dute antolatzaileek: kostaldean pilatutako plastikoak eta bestelako hondakinak jasotzea eta, bide batez, herritarrak itsas ingurunea babestearen garrantziaz sentsibilizatzea.

Informazio praktikoa

Debako, Itzurungo, Zarauzko eta Zurriolako hondartzetan, Urumea ibaian, Pasaiako badian eta Plaiaundiko parkean egingo dituzte bilketak. Parte hartzeko asmoa dutenei aurrez izena ematea gomendatu diete, antolaketa lanak errazte aldera; hiru modutara eman daiteke izena: karteletan agertzen den QR kodea baliatuta, 619 81 42 25 telefono zenbakira deituta edo *itsaszaintzasarea@mater.eus* helbide elektronikora idatzita. Bestalde, antolatzaileak arduratuko dira bilketarako eskularruak eta gainontzeko materiala prestatzeaz.

Debako deialdira batzen diren herritarrentzako elkargunea Cardenas pasealekuan jarriko dute; hondartza erdiko sarrera nagusiaren parean, hain zuzen.



Boluntario talde bat, aurrez egindako bilketa batean. ITSAS ZAINTZA SAREA

Unax Lobok hirugarren postua eskuratu du Espainiako Skate Park Txapelketan

Haren kategorian ez ezik, sailkapen nagusian ere postu aipagarria lortu du

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Unax Lobo Erañak erakustaldi ederra egin zuen joan den asteburuan La Nucian (Alacant) jokatutako Espainiako Skate Park Txapelketan. Debarrak podiumera igotzea lortu zuen 12 urtez azpiko kategorian, hirugarren postua eskuratuta. Sailkapen nagusian ere emaitza aipagarria lortu zuen, hamahirugarren amaitu baitzuen lehia.

Haren aita Iker Lobok nabarmendu duenez, "ez da nolanahiko emaitza", Espainiako Txapelketan parte hartu duen lehen aldia izan baita: "Debuta zela kontuan hartuta, ezin da gehiagorik eskatu". Haren ustez, Unaxek erakutsitako maila eta egindako lana azpimarratzekoak dira; batez ere, txapelketan bildutako kirolarien maila kontuan hartuta: "Oso skater onak elkartu ziren. Egia esan, ez genuen espero hain emaitza ona lortuko zuenik".



12 urtez azpikoen podiuma –eskuinetik bigarrena da Lobo–. IBERDROLA SKATE SERIES

"Sekulako lorpena"

Debarra ezin izan zen finalerako sailkatu, baina, haren aitaren ustez, finalerdietara iristera bera ere "sekulako lorpena" izan zen: "Bikain egin zuen lana; txanda politak osatu zituen, eta haren mailan oso ondo aritu zen. Ez zuen akatsik egin, eta dena ezin hobeto atera zitzaion".

Erantsi duenez, fase erabakigarri hartan egindako lanari esker eskuratu zuen podiumeko azken koska: "Aurretik, laugarren postuan zihoan, baina finalerdian egindako lan onari esker hirugarren kokatu zen. Egia esan, burua hotz mantendu zuen une oro. Hura hasi zen markagailua irekitzen, eta, buruarekin jokatuz, puntuazio bat finkatu eta hura eskuratzen saiatu zen".

Emaitza horiekin, denboraldi bikaina borobildu du Lobok. Aitaren hitzetan, azken hilabeteotako ibilbidea "ahaztezina" izan da, garaipen eta lorpen garrantzitsuz betea. Besteak beste, Euskadiko Hiri Kirolen Txapelketa irabazi zuen, eta horri esker lortu zuen Espainiako Txapelketan parte hartzeko txartela. Gipuzkoako Kopa ere bereganatu zuen, eta, orain, Espainiako Txapelketan hirugarren postua eskuratu du.

Laster, Vert Skateko proba batean lehiatuko da, eta, hitzordu horren ostean, datorren denboraldia prestatzen hasiko direla iragarri du aitak; argitu duenez, datorren urtean goragoko kategorian lehiatuko da, 16 urtez azpikoetan.

Mugartegi-Ibarrolak eta Albizu-Salegik jantzi dute txapela



NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Nesken XIV. Pala Txapelketako –XI. Maite Etxeberria Oroimenezkoa– finalek maila handiko ikuskizuna utzi zuten larunbatean Aldats pilotalekuan: lehen mailan, partida estua jokatu ostean, Eva Ibarrola eta Maite Mugartegi mutrikuarrak nagusitu ziren (22-21), Maialen eta Naroa Rosa ahizpa debarren aurka; bigarren mailan, Deban geratu zen txapela: Marilu Albizuk eta Monika Salegik 22-14 hartu zituzten mendean Sheila Gonçalves eta Amaia Zinkunegi.

Aldizkako mozketak Itziar eta Azkoitia lotzen dituen GI-3210 errepidean

N.B.A. ITZIAR

Lastur inguruan izandako luizia egonkortzeko lanak direla eta, aldizkako zirkulazio mozketak egingo dituzte Itziarko gaina eta Azkoitia –Azkarateko gainean barrena– lotzen dituen GI-3210 errepidean. Astelehenean ekin zieten 4+480. kilometro puntuan –Endoiarako bidegurutzetik gertu– luiziak kaltetutako zabalgunea finkatzeko lanei, eta, aurreikuspenen arabera, bi asteko epean amaituko dituzte.

Lanek iraun bitartean –09:00etatik 17:00etara–, zirkulazioa bi noranzkoetan tarteka etenda egongo dela ohartarazi du Aldundiak. Gutxi gorabehera, 15 minutuko mozketak egingo dituzte, eta errepidea guztiz itxita dagoen tarte horietan ibilgailuak N-634 eta GI-2634 errepideetatik desbideratuko dituzte.



GI-3210 errepidean egiten ari diren lanak.

Abian dira Hondartza kalea berrurbanizatzeko lanak

N.B.A. DEBA

Egunotan ekin diete Hondartza kalea berrurbanizatzeko lanei. Udalak, lizitazio-prozesua amaitu ondoren, Unebide enpresari esleitu dizkio obrak, 135.919,30 euroko aurrekontuarekin –BEZa barne–. Jarduketa integral horren bidez, eremu hartako hiri-ingurunea, mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetu egin nahi dituzte, aparkaleku berriak eta zamalanetarako gune bat sortuz eta oinezkoentzako ibilbideak egokituz.

Obrek kaleko bi zatitan izango dute eragina. Bertan, galtzadak gaur egun hartzen duen espazioa murriztu egingo dute, aparkaleku berriak eta zamalanetarako gune zehatz bat egokitzeko. Espazioaren berrantolaketa horri esker, kaleko erabilerak hobeto uztartzea eta mugikortasuna modu ordenatuagoan garatzea espero dutela adierazi dute.

Arrapala bat

Oztopo arkitektonikoak kentzeko neurriak ere jaso dituzte proiektuan; horretarako, oraindik zehaztu gabe dagoen toki batean arrapala bat eraikitzea aurreikusi dute.

Horrez gain, urbanizazio-lanak, zoladurak egokitu, hiri-altzariak berritu eta dauden zerbitzuekin lotutako esku-hartzeak ere egingo dituzte.







IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa-lanak egiteko prest nago. 613 55 60 02

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, gauez edo ospitalean zaintza-lanak egiteko prest nago. Garbiketa-lanak ere egiten ditut; tartean, atariak. 652 02 04 64

Elgoibar. Ile-apaintzailea naiz. Etxez etxe egingo nuke lan. Emakumezkoentzako zein gizonezkoentzako zerbitzua ematen dut. 602 37 95 75

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Goizez edo arratsaldez lan egingo nuke. Euskalduna naiz eta titulu soziosanitarioa daukat. 660 51 17 81 / 943 74 23 30

Elgoibar. Adinekoak zaintzen lan egingo nuke: astegunetan, asteburuetan, ospitalean zein opor egunetan. 631 42 56 86

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06 Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!

Galle-Tiak® FABRIK



ERMUA
Danel
Zorionak, potxoli! Gozatu zure eguna, eta ez galdu inoiz irribarre polit hori. Muxu eta besarkada potolo bat, etxeko guztion partez.



SORALUZE
Inar
Inar, gure altxor maitea. Izan beti zoriontsu eta ez galdu inoiz zure irribarrea. Izugarri maite zaitugu!



ERMUA
Miguelin
Zorionak, Miguelin! Ondo pasa zure eguna! Muxu asko!



SORALUZE
Iñigo
Zorionak, Iñigo! Ondo-ondo pasa eguna eta disfrutatu. Besarkada handi bat, etxekoen partez eta, bereziki, Julenen eta Sararen partez. Maite zaitugu!



ELGOIBAR
Intza
Zorionak, Intza! Iritsi da bederatzigarrena ere! Ondo pasa eguna!

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz *zorionagurrak@barrena.eus*. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
- Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

Galle-Tiak® FABRIK

Zorion agurrek saria dute Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean
Galle-Tiak Fabrik-eko produktu pertsonalizatuak zozkatuko dira astero!

Aste honetako irabazlea: INAR MURGUZUR GABILONDO

Joan den asteko irabazlea!



Barrena
BATZEN GAITUENA

KANTARI ikuskizuna
Elgoibarko Herri Antzokitik

Azaroaren 28an,
16:30etik aurrera





Jarraitu ZUZENEAN
Barrena.eus-en

SORALUZE

Maribi Ariznabarreta Irazabal



2026ko azaroaren 19an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko une honetan
gurekin zaudeten guztioi eta
gure amaren azken agurrera etorri zinetenoi.

Etxekoak

ELGOIBAR

Angel Beristain Manzisidor



2026ko azaroaren 21ean hil zen, 95 urte zituela.

Begiak garden, bihotza handi
ze indar ta ze adore.
Zenbat momentu zure ondoan
ze suerte ta ze ohore.
Aitxitxa maite, zuk ereindako
haziak loratzen daude.
Eskerrik asko, maite zaitugu
gurekin ta gugan zaude.

Etxekoak



Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - 605 706 086 (24 orduz)
eskelak@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / *barrena@barrena.eus*

OSTIRALA 27

- **DEBA Hitzaldia: 'Aurretiazko borondateak'** Tailerraren bigarren saioa. Arbil elkartean, 11:00etan.
- **DEBA Mindfulness tailerra** Arbil elkarteak antolatuta. Eneko Cabellok gidatuko du. Ikigai zentroan, 12:00etatik 13:00etara.
- **ELGOIBAR Tailerra: aurretiazko borondateak** Aurretiazko borondateei buruzko tailerra egingo dute. Interesatuek Osasun Zentroan eman beharko dute izena. Aita Agirreko areto nagusian, 15:45etan.
- **SORALUZE Odol emaileen hitzordua** Odol emaileen bi hilean behingo hitzordua, odol ateratzeak egiteko. Itxaropenan, 16:30ean.
- **MENDARO 'Indarkeriarik ez, azaroak 25a lantzen'** Ludotekan, 17:00etan.
- **DEBA Ipuin kontaketa** Gazte Asanbladaren 26. urteurrenaren harira, ipuin kontaketa, txotxongilo tailerra eta txokolate-jana. Gaztetxean, 17:00etan.
- **MENDARO Mahai-futbol erronka** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Film laburra: 'Lolaren bizikleta'** Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren baitan antolatuta. Doan. Herriko Antzokian, 19:00etan.
- **DEBA Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa** Foruen plazan, 19:30ean.
- **DEBA Manex Astigarragaren 'Margolari' umorezko bakarrizketa** Sarrera: 5 euro, *labur.eus/margolarideba* estekan. Kultur Elkartean, 20:00etan.
- **DEBA Loreto Aramendiren organo kontzertua** Santa Maria elizan, 20:00etan.
- **ERMUA Antzerkia: 'Jo!'** Sarrera, 10 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.



ERMUA Antzerkia: 'Jo!'

OSTIRALA 27: Sorkun eta Grego lagun minak aspaldi ez dira elkarrekin egon. Kalean topo egin eta kirola egiten duten bitartean, ikerketa antropologiko bat eskainiko dute. Erabiliko duten metodologia bizitzako istorioak izango dira. Antzezleak: Anduriña Zurutuza eta Beatriz Egizabal. Sarrera 10 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.



ELGOIBAR Azken zapatuko feria

LARUNBATA 28: Debemenek eta Udalak antolatuta. 09:00etatik 14:00etara, baserriko eta Artalde Artisau Taldearen produktuen salmenta Aita Agirre plazan. 11:00etan hasita, Catt Morkaikok pintxoak prestatuko ditu Aita Agirre plazan, Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin. Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa.

LARUNBATA 28

- **ELGOIBAR Tailerra: Emakumeentzako autodefentsa** Kiroldegian, 09:30ean,
- **DEBA 'Artzabalgo labaderora irteera familian'** HH4-HH5 eta LH1-LH2koei zuzenduta, Izan Tribu ekimenaren baitan. Foruen plazan, 10:30ean.
- **ERMUA Pertsona helduentzako olerki tailerra: 'La voz de la poesia'** Udal Liburutegian,11:00etan.
- **DEBA Iturrian koruaren emanaldia** Euskeraz Bagera egitasmoaren baitan antolatua. Oskarbi tabernatik abiatuta, 12:30ean.
- **ELGOIBAR Elgoibar Kantari** Udalak, Herri Eskolak eta Elgoibar ikastolak antolatuta. Herriko Antzokian, 16:30ean.
- **ERMUA Ipuin kontaketa: 'Arratsaldean kontu kontari'** Lur Usabiagaren *Aintzinako euskal kondairak* irakurriko dute. 2018tik 2023ra jaiotako umeentzat zuzendua. Lekua gorde behar da: 943 17 92 12. Udal Liburutegian, 17:30ean.
- **MENDARO Gaztelekua: ehungintza tailerra** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Gamusino Fest** Gazte Asanbladaren 40. urteurreneko jaia. Kaska eta Arratians taldeen kontzertua. Gaztetxean, 18:00etan.

IGANDEA 29

- **DEBA Kina jokoa** Arbil elkartean, 17:30ean.



DEBA Itsas hondakinen bilketa

LARUNBATA 28: Itsas Zaintza Sarearen ekimenez antolatutako ekintza. Parte hartzeko aurrez izena ematea gomendatzen da: karteletan agertzen den QR kodea baliatuta, 619 81 42 25 telefono zenbakira deituta edo *itsaszaintzasarea@mater.eus* helbide elektronikora idatzita. Debako hondartzan, 11:00etan.

- **MENDARO Gaztelekua: emakume sortzaileak** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **MENDARO 'Ai gure juaneteak' antzezlanaren emanaldia** Mikel Laboaren zenbait kantaren hitzetan oinarritutako antzezlana. San Agustin aretoan, 18:00etan

ASTELEHENA 30

- **SORALUZE 'Jolasa kalera' ekimena** Zubi Nagusian, 16:30ean.
- **ERMUA Hiri Hezitzaileen Eguna** 2 eta 12 urte arteko haurrei zuzendua. Zirku tailerra, txikienentzako eraikuntza-gunea eta sukaldaritza-txokoa. Orbe Kardinala plazan, 17:00etatik 19:30era –eguraldi txarra eginez gero, Merkatu Plazan–.
- **ERMUA Kokedama tailerra** Ermuko Udaleko Kultura Sailak antolatuta. 18 urtetik gorakoentzat. 25 euro –22,50 euro, deskontuarekin–. Plaza kopuru mugatua. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.

ASTEARTEA 1

- **ELGOIBAR Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua** Merlin Medinak emango du. Bakarkako saioak. Doan. Beharrezkoa da aurretik hitzordua hartzea: 688 64 09 83. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 16:00etan.
- **ERMUA Tailerra: 'Ehuntzen eta hitz egiten'** 65 urtetik gorakoentzat. Udal Liburutegian, 15:30ean.
- **ERMUA Tailerra: 'Ehuntzen eta hitz egiten'** Belaunaldi artekoa. Udal Liburutegian, 16:45ean.
- **MENDARO 'Letren harietatik jolasean' Haurren Irakurketa Kluba** Ipuin kontalaria: Lur Usabiaga. LH1-LH2ko haurrak, 17:00-17:40; LH5-LH6ko haurrak, 17:45-18:15; LH3-LH4ko haurrak, 18:30-19:15. Udal liburutegian.
- **MENDARO 'Euskararen egunaren bueltan'**



Azaroaren 1etik 4ra. Ludotekan, 17:00etan.

- **SORALUZE Ahalduntze eskola: 'Indar ariketak 50-65 urte bitarteko emakumeentzat*'** Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udazkeneko eta neguko egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Tolarekua aretoan, 17:45ean.
- **MENDARO 'Ekintza librea'** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **ELGOIBAR 'Nola hitz egin sexualitateaz seme-alabekin'** Ele bitan. Lilan, 18:00etan.
- **ERMUA 'Viñetas' komikien irakurketa kluba: 'Soy del pueblo'** Udal Liburutegian, 19:00etan.
- **DEBA 'Abestu gurekin Gabon hauetan' entsegua** Aitzuri Abesbatzak antolatuta. Musika Eskolan, 21:00etan.
- **SORALUZE Haurreskolan izena emateko epea zabalik.** 2025 eta 2026. urteetan jaiotako haurren gurasoek edo legezko tutoreek eska dezakete plaza Haurreskolan, abenduaren 10era bitarte; epe horretan izena emandako haurrak urtarrilaren 4an hasiko lirateke.

ASTEAZKENA 2

- **DEBA Errigoraren saskien banaketa** Euskeraz Bagera egitasmoaren baitan antolatua. Kultur Elkartean, 16:30ean.
- **ERMUA 'Euskara eta biok' liburuaren aurkezpena** Andrea Bella Garcia Uruguaiko euskaldunak *Euskara eta biok* liburua aurkeztuko du. Kaltxango AEK Euskaltegian, 16:30ean.
- **SORALUZE Ahalduntze eskola: 'Crochet tailerra: hariz hari emakumeon* sareak ehuntzen'** Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udazkeneko eta neguko egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Kalebarren 8an, 18:00etan.
- **MENDARO Heziketa digitalari buruzko tailerra** Hezkuntza Foroak antolatuta. Hezkuntza digitalean aditua den Julen Lizanasorok emango, haur eta gurasoentzat. LH3tik LH6ra arteko ikasle eta gurasoentzako da, eta izena eman behar da, liburutegian edo eskolan. Ikastolan, 18:00etan
- **DEBA Errigoraren 'Sustraitik espaziora' dokumentalaren proiekzioa** Euskeraz Bagera egitasmoaren baitan antolatua. Kultur Elkartean, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Sinadura ekitaldia** Ibon Martin idazleak *Bajamar* liburua aurkeztuko du. Pitxintxu dendan, 19:00etan.
- **ERMUA 'Un capítulo más' gaztelerako irakurketa kluba: 'Tuya'** Udal Liburutegian, 19:00etan.



SORALUZE Nagusien Kontseilua

ASTEAZKENA 2: Hileroko bilera. Kalebarren 8an, 10:00etan.



MENDARO Dokumentala: 'MuguruzaFM 40 Tour'

OSTEGUNA 3: Mendaroko Udalak antolatuta, Euskararen Egunaren baitan. Doakoa. Edukiera bete arte. San Agustin aretoan, 19:00etan.

- **ELGOIBAR 'Epeletan' literatura tailerra** Oihana Aranaren *Zerua hemen* liburua landuko dute, Ainhoa Aldazabalek dinamizatuta. Idazlea bertan izango da. Gotzon Garate liburutegian, 19:30ean.
- **DEBA 'Abestu gurekin gabon hauetan' entsegua** Aitzuri abesbatzak antolatuta. Musika Eskolan, 21:00etan.

OSTEGUNA 3

- **DEBA Hitzaldia: 'Alzheimerra, itxaropenerako arrazoiak'** Hizlaria: Gurutz Linazasoro neurologoa. Arbil Elkarte Sozialak antolatu du solasaldia. Kultur Elkartean, 11:00etan.
- **DEBA Oinarrizko informatika ikastaroa** Arbil elkartearen ekimenez. Arbil elkartean, 17:30ean.
- **ERMUA 'Gaztetxo letrazaleak' gazteentzako irakurketa kluba: 'Printzesa txizontzia'** 9-11 urte bitartekoentzat. Udal Liburutegian, 17:30ean.
- **DEBA 'Euskaraz e(ra) gin' kartelen jartzea** Euskeraz Bagera egitasmoaren baitan antolatua. Udaletxetik abiatuta, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Herri-itunaren aurkezpena** Batera Elgoibarren herri-ekimenak herri-ituna aurkeztuko du. Aita Agirre kulturgunean, 19:00etan.
- **DEBA Kalean Kantuz eta Baratxuri Zopa, kalez kale** Euskeraz Bagera egitasmoaren baitan antolatua. Herriko hainbat gunetan, 19:30ean.
- **ELGOIBAR Monografikoa: Indarra lantzen** Iosu Rodriguez kulturistak emango du. Plazak mugatuak dira eta izena eman behar da, *elgoibar@mintxeta.eus* helbidera idatzita. Patronatuko abonatuentzat. Mintxetako muskulazio gelan, 18:30etik 20:00etara.
- **ERMUA 'Irakurketa gozagarri' euskarazko irakurketa kluba: 'Esker onak'** Udal Liburutegian, 19:00etan.

OSTIRALA 4

- **ELGOIBAR Gabonetako apaingarrien tailerra** Kalegoen plazan, 17:00etan. Euria bada, Aita Agirreko areto nagusian.
- **MENDARO 'Musika asmatu!'** Gaztelekuan, 18:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

27 OSTIRALA **Oruesagasti / A. Zalduegi / A.M. Baz**
28 LARUNBATA **Barrenetxea / A. Zalduegi / M. Alves / *A. Alcala**
29 IGANDEA **Barrenetxea / A. Zalduegi / M. Alves**
30 ASTELEHENA **Soto / L. Apraiz / I. Lecumberri**
1 ASTEARTEA **Garitaonandia / L. Apraiz / A. Alcala**
2 ASTEAZKENA **Arriola / L. Apraiz / I. Ugarte**
3 OSTEGUNA **Fernandez / L. Apraiz / A.M. Baz**
4 OSTIRALA **Yudego / Lasuen-Elezgaray / M. Alves**

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK
Egunez: 09:00-22:00
Gauez: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK
DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1- 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR
HERRIKO ANTZOKIA
'Digger'
Larunbata, 28: 19:00, 22:15
Igandea, 29: 19:00
Astelehena, 30: 21:00
'La isla olvidada'
Igandea, 29: 16:30

ERMUA
ERMUA ANTZOKIA
'Wicker'
Larunbata, 28: 19:30
Astelehena, 30: 20:30
'Ruega por nosotras'
Larunbata, 28: 22:00
Igandea, 29: 19:30
'El gato con sombrero'
Igandea, 29: 17:00

EIBAR
COLISEO ANTZOKIA
'Los juegos del hambre. Amanecer en la cosecha'
Larunbata, 28: 16:00, 19:15, 22:30
Igandea, 29: 16:30, 20:00
Astelehena, 30: 19:30

'Muguruza FM 40 Tour (VOSE)'
Larunbata, 28: 22:30
Igandea, 29: 20:00
Astelehena, 30: 19:30
'Los miserables'
Larunbata, 28: 19:00
Igandea, 29: 16:30, 20:00
Astelehena, 30: 19:30
'Ratones al ataque. Operación Navidad'
Larunbata, 28: 17:00
Igandea, 29: 17:00
'Carmen'
Larunbata, 28: 20:00

DEBA
KULTUR ELKARTEA
'La historia del sonido'
Igandea, 29: 19:00

SORALUZE
HERRI ANTZOKIA
'Fleak'
Igandea, 29: 17:00

AZKEN BERBA

Emakume enpresariak



AMATIÑO

Etorkizuneko enpresetan funtsezkoak izango diren ezaugarriak –lankidetza operatiboa gehiago, lehiakorra baino; talde-lanerako prestasun handiagoa; kudeaketa intuitiboagoa; pertsonen arteko harremanetarako egokiagoa…– emakumeen dohainak dira. Hau guztia Dionisio Aranzadi Deustuko Unibertsitateko errektore-ohiak idatzi zuen *El arte de ser empresario* saiakeran (1992). Eta ezarri: *Honezkero enpresa-masterra egiten ari diren ikasleen erdiak emakumeak dira. 2010eko hamarkadan lanean hasiko dira, eta 2020etik aurrera emakumeek erabaki-organoak partekatuko dituzte.*

Aranzadik orain 35 urte esandakoaz gogoratu naiz, Rosa Carabel Eroskiko CEOak aldarrikatu duenean "berdintasuna enpresen agendan" jarri beharra eta Amaia Gorostiza Eibar futbol taldeko presidenteak kargua utzi duenean.

Eibar futbol taldea da Debabarrengo gizarte-erakargarritasunik handienetakoa duen enpresa, eta Mallabian inoizko kirol-instalazioak eraiki dituena. Dena apal, talde-lanean, ezer berezirik egin izan ez balu bezala, eta, alde egin duenean, guztiak negarrez lagata.

BUKATZEKO

'Barkli' aplikazioa, kaleko txakur-kakak gutxitzeko sortua

Aplikazioa doan deskargatu daiteke Android eta Ios gailuetan

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR

Gorotzak zapaltzeak suerte ona ematen duela uste dute batzuek, baina gehiago dira txakur-kaka zapaldu ostean haserretu egiten diren herritarrak. Dena dela, gure auzoetan eztabaida iturri bilakatu dira txakurren kakak, eta, jabe batzuek beti biltzen dituzten arren, beste batzuen axolagabekeriak arazoak sortzen ditu. Bada, egoera horri irtenbidea emateko sortu dute *Barkli*. Herritarrak eta teknologia uztartuta, modu anonimoan, txakur-kakak non dauden jasotzen du aplikazioak, modu horretan udalek garbiketa zerbitzuak aktiba ditzaten.

Elgoibarren sortu dute aplikazioa, eta orain, Debabarreneko udaletan aurkezten ari dira, baina etorkizunean are gehiago zabaltzea dute helburu. Miguel del Sol Merino (Elgoibar) eta Aitor Ogiza (Eibar) garatu eta sortu dute *app*-a. Orain dela pare bat urte hasi ziren buruari bueltaka, Ondarruko jaietan kaleak kakaz beteta aurkitu zituzten egun batean. Software-enpresa baten laguntzarekin garatu dute guztia, eta, bidean zailtasun eta oztopoak izan badituzte ere, orain dela hilabete inguru bistaratu zituzten *barkli.eus* webgunea eta *app*-a. Hilabete honetan harrera "oso ona" izan duela adierazi dute arduradunek, eta, pixkaka-pixkanaka, *Barkli* komunitatea handituz doa. Helburu nagusia da herritarrak eta udalak elkarrekin eta norabide berean elkarlanean jartzea, kaleko txakur-kakak jasotzeko.



Miguel del Sol Merino eta Aitor Ogiza. 'BARKLI'

Guztiz anonimoa

App-a doan deskargatu daiteke Android eta IOS gailuetan. Argazkiak ateratzen dira aplikazioarekin, eta une horretan bertan txakur-kaka hori geolokalizatuta geratzen da, baina argazki hori ez da telefonoan gordeta geratuko, espazioa hartzen. Argazki horrek Udalari bidaliko dio informazio zehatza, eta, horri esker, garbiketa zerbitzua aktibatu ahal izango du Udalak. Informazio horrekin kale-garbitzaileak toki konkretuetara joango dira garbitzera, eta udalek kalitatezko garbiketa egin ahal izango dute. "Txakurren gorotzek haserrea sortzen dute herritarrengan, eta, askotan, jendeak uste du udalek ez dutela ezer egiten horiek garbitzeko. Kontua da udalek ez dakitela kaka horiek non dauden, eta horregatik geratzen dira garbitu gabe. Donostian, esaterako, egunero 3.000 txakur-gorotz jasotzeke geratzen dira", azaldu du Del Solek. Haren ustez, garrantzitsua da udalak eta herritarrak norabide berean eta elkarlanean aritzea arazoari aurre egiteko: "Zenbat eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta informazio gehiago izango dute udalek, eta garbiketa eraginkorragoa izango da".

Herritarrak eta udalak norabide berean, elkarlanean, aritzea dute helburu

Herritarrak arazo horren inguruan kontzientziatu nahi dituzte, parte har dezaten. Txakur-kakak sortzen dituzten arazoak aipatu ditu Del Solek, eta horiek kaletik kentzeak duen garrantzia nabarmendu du: "Txakur-kakak oso toxikoak dira, gizakiarenak baino askoz arriskutsuagoak, eta oso kutsagarriak. Txakur-kakak kaleetatik jasotzeak herri seguruagoak ekarriko ditu, eta denok lasaiago bizi ahal izango gara. Umeek berdeguneetan jolasteko aukera izango dute, edo lasai eseri ahal izango gara zelaian liburu bat irakurtzeko".

Udalentzako onurak

Herritarrek ateratzen duten argazki bakoitza datu zehatz bilakatzen da, adimen artifizialari esker. Hortaz, zenbat eta argazki gehiago bildu aplikazioan, orduan eta informazio gehiago iristen zaie udalei, eta erabilgarriagoa izango da. "Udalek sekulako dirutza erabiltzen dute kalea garbitzeko, eta, hala ere, askotan, ezin izaten dituzte gorotz guztiak jaso, ez dakitelako non dauden. Aplikazio horri esker, udalek ere diru asko aurreztu ahal izango dute". Herritarren argazkiekin bero-mapak sortzen dira, eta mapa horietan ikusi ahal izango dituzte udalek garbitzeko beharrik handiena daukaten kale edo auzoak. Hartara, garbiketa-arduradunak kokaleku zehatzetara bidaltzeko aukera izango dute.

Aplikazio soila baino gehiago da, beraz, *Barkli:* "Herri mugimendua da, kaleak garbi mantentzeko sortutako teknologia". Klik bat, mugimendu txiki bat, eta eragin handia.

